

txostena



MUGARIK GABE

Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
Declarada de Utilidad Pública



10



MUGARIK GABE

Pasa den urtetik bizi dugun krisiari aurre egiteko hartu diren zenbait neurriekin topo egin dugu 2010 urtean. Instituzioek hartu dituzten neurri hauen arteko batzuk nazioarteko kooperazioari zuzendutako fondoak murrizteari begira izan dira.



gastu sozialen murrizketari
Garapenerako Laguntzaren murrizketari



Gastu militarren eta armamentu gastuen murrizketari
Finantza-sistemen erregularizazioari
Banka Publikoari



Azken 20 urte hauetan, herritarren babes eta laguntzari esker, nazioarteko kooperazioa erregularizatzea eta mota horretako akordioak jasotzen dituzten legeak sortzea lortu dugu. Era berean, 2007an Estatu Hitzarmen bat sinatzea lortu genuen 2012an Errenta Nazional Gordinaren % 0,7 kooperazio horretara bideratzeko. Pobreziaren aurkako Lege eta Estatu Hitzarmenek helburu hau erregulatzen duten arren, oraindik ere ez dugu lortu hitzartutakoa gauzatzea eta banketxeek eragindako krisi garai hauetan are eta gehiago urrundu gara gure helburuetatik, sortutako legeek bere izateko arrazoia eta zentzua galdu duten bitartean.

Gastu militarren murrizketa, finantza m e r k a t u e n erregularizazioa edo banka publiko baten sorrera bezalako neurriak bultzatu beharrean, ardura diru-sarrera gutxiago dutenen gainean jarri da berriz ere, ardura politiko gutxien duten pertsonak izan arren.



Munduan aldaketak egin nahi badituzu hor egon beharko duzu, egunez egun pare bat pertsonengan gai baten inguruko interesa pizteko lan gogor eta aspergarria egiten pixka bat hobeagoa den erakunde bat eraikitzen, hurrengo urratsa ematen, frustrazioa ezagutzen eta azkeneko, nonbaitera ailegatuko zara (...)

Horrela lortuko duzu esklabotasunetik ihes egitea, horrela lortzen baita pertsona langileak babestea. Imagina dezakezun garaipen bakoitza mota honetako ahaleginaren emaitza da.

Noam Chomsky, 2005

Ezjakintasuna ez da arazoa, aurreiritziak ordea bai
Hans Rosling



Zergatik GENERO-EKITATEAN GIDA?

Mugarik Gaben, beste erakundeetan bezala, e-mail artikulu edo eskutitzen bat idatzi edo materialen bat argitaratzean, gure izaera eta pentsaera ere transmititzen ditugula kontutan izan behar dugu. Hori dela eta, eta gure helburua gizarte zuzenago baten alde egitea dela kontutan izanik, zabalitzen ditugun materialak eta burutzen ditugun prozesuak ezin dira ustekabeko ekintzetan oinarritu behar. Horregatik, hedatzen dugun informazio guztia azterketa sakon baten ondorioa izan behar delakoan gaude.

Illo beretik, gure materialak egiterakoan genero azterketa bat egitea derrigorrezkoa dela uste dugu, batik batik azterketa hori gure pentsaeran eta guztiontzako giza garapen jasangarria eraikitzerako orduan ezinbestekoa dela uste dugulako. Beraz, eta egungo genero harremanetan agertzen diren bidegabekiak aldatu nahi baditugu, derrigorrezkoa bilakatuko zaigu orain arte komunikatzeko erabili izan dugun modua aldatzea.

Ekitatearen alde egin nahi badugu, gure komunikazio moduak sakonki aztertu beharko ditugu.



Honekin lotuta, eta gaur egungo mundu honetan hedabideek betetzen duten papera ikusita, gure eskuetan dauden komunikazio tresnak, erakunde bezala eraiki nahi dugun errealitatea eta beharrezkoak diren aldaketan oinarriak bideratzera zuzendu nahi ditugu. Horretarako gure komunikazioari beste ikuspegi bat eman beharko diogu, genero-arloan gizonetzkoen eta emakumezkoen aldeko ekitatea bultzatu eta, funtsean, errealitate desberdin bat zabaltzeko.

Beraz, gure eguneroko lanan erabiltzen ditugun irudietan, edukietan, hizkuntzan nahiz metodologietan gero eta genero hurbiltasun handiagoa lortu ezker, orduan eta genero aldetik komunikabide zuzenagoak lortuko ditugulakoan gaude.





4

Egitekoa

Mugarik Gabe parte-hartze tresna bezala

Aldaketa pertsonala eta soziala gauzatzeko, kontzientzia hartu eta norabide horretan lan egin beharra dago, horrela beraz, Mugarik Gabe helburu horretarako tresna izan dadila nahi dugu.

Hori hala izanik, antolamendu guztiz asanblearioa dugu, hau da, erantzukizunak partekatzen ditugu eta bazkide, boluntario eta kontratatupeko pertsonalarekin batera erabakitzen dugu erakundearen estrategia.

www.mugarikgabe.org

Zure partehartzeari esker jarraitzen dugu lanean

Eremuak eta parte hartzeko moduak

- Diruz laguntzen duten bazkideak
- Ekimenetan parte hartzen duten boluntarioak:
 - Bazkideen batzordeetan eta hileroko batzordeetan parte hartzea
 - Lan taldeetan parte hartzea:
 - Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza taldea.
 - Garapen proiektuen taldea.
 - Kudeaketa eta administrazio taldea.
 - Genero taldea.
 - Herrialdeetan parte hartzea.

Dohaintzak

- Urteroko bazkide kuotaz gain, nahi baduzu dohaintzak ere egin diezazkigukezu, bai proiektu jakin bat bultzatzeko, bai giza garapen ekitatibo eta iraunkorraren alde egunero egiten dugun lana sustatzeko.

Jakinarazi nahi dizuegu, Mugarik Gaberi egindako ekarpenak errenta aitortzean kentzekoak direla.

Dirua sartzeko:

EUSKADIKO KUTXA - 3053 0083 22 0830701234
BILBAO BIZKAIA KUTXA - 2095 0349 80 9103417445

Hogei urte hauetan bazkideen eta diru-emaileen laguntza eskertzen dugu, baita Mugarik Gaberen egunero lanean Euskadiko Kutxaren kolaborazioa ere.



MUGARIK GABE

O.N.G.D. / G.G.K.E.

Declarada de utilidad pública

www.mugarikgabe.org

Zure lankidetzari esker dihardugu lanean / Tu colaboración hace posible que sigamos trabajando

Izen deitura / Nombre y apellidos:

Jaiotze data / Fecha de nacimiento:

Lanbidea / Profesión:



Helbidea / Dirección:

Herria / Población:

P.K./C.P.:

e-mail:

NAN / DNI:

Banku edo Aurrezki Kutxa
Entidad

Bulegoa
Oficina

Kontrol
Control

Kontu Zbkia.
Nº Cuenta

10 euro hilean
10 euros al mes

edo nahi duzun zenbatekoa / o el importe que desees:

.....euro hilean
.....euros al mes

.....euro hiruhilabetean
.....euros al trimestre

.....euro sei hilabetean
.....euros al semestre

.....euro urtean
.....euros al año

Hurrengo PFEZren zergarinketarako diru laguntzetako ziurtagiria jaso nahi dut.
Deseo recibir el certificado de donación para la desgravación en el próximo IRPF

Bidali BILBOKO MUGARIK GABE-ra / Enviar a MUGARIK GABE BILBAO

Sinadura / Firma:

PFEZren ZIURTAGIRIA

Mugarik Gaberi egindako diru laguntzak kengarriak direla errentaren adierazpenean gogoratzen dizuegu. Urte honetatik aurrera eta arautegi berria dela eta, kenkaria diru laguntzetako % 30a da. Ziurtagiria nahi izanez gero, gurekin harremanetan jarri.

CERTIFICADO DE IRPF

Os recordamos que las aportaciones realizadas a MUGARIK GABE son deducibles en la declaración de la renta. Desde este año y al acogernos a la nueva normativa, la deducción es del 30% de las aportaciones. En caso de desear el certificado, ponerse en contacto con nuestra oficina.

BILBAO: Grupo Vicente Garamendi 5, Lonja - 48006 Bilbao • Tel. 944 154 307 • Faxa: 944 166 796 • bilbao@mugarikgabe.org

DONOSTIA: Tejería Kalea, Bajo 1, 5 zbkta accesorio, 20012 Egia Auzoa. • Tel. 943 445 977 • Fax: 943 445 977 • 656708598 • gipuzkoa@mugarikgabe.org

GASTEIZ: Casa de asociaciones 'ITZIAR' - Plaza Zalburu, s/n Arana Auzoa - 01003 Gasteiz • Tel. 945 277 385 • araba@mugarikgabe.com



Guatemala

Nazioarteko lanbidetzak Herri Indigena eta emakume antolatuekin



Aurreko urteen aldean, testuingurua ez da gehiegi aldatu. Guatemalak, gobernuak babesten duen eta enpresa transnazionalen interesen ondoriozkoa den neokolonialismoari aurre egiten jarraitzen du. Gobernuak, antolatutako sektore pribatuaren presio indartsuaren menpean, multinazionalen jokabidea babesten jarraitzen du.

Presa hidroelektrikoen eraikuntzaren ondorioz, presa hauek lekutzen diren tokietako komunitateetan uholdeak, utzarazteak, lur-gabetzeak eta bestelako ondorio kaltegarriak pairatzen ari dira.

Komunitateek mobilizazio sozial handia mantentzen dute eta meataritzaren aurkako erabateko jarrera adierazi dute; nazio mailan egindako 47 komunitate-kontsultetan 650.000 pertonek "meataritzari ez" esan zioten meatze ustiapenerako lizentziak baimentzeko kontsulta-prozesua zalantzan jarriz.

Beste alde batetik, zergen afera da gobernu ezberdinen eta CACIF entitatean antolatzen diren enpresari handien arteko ebatzi gabeko eztabaidagaia.

Diktadura militarren garaiko sarraskien harira militarren eta militar ohien aurka egindako epaiketetan zenbait aurrerapauso eman dira, baina horrek ez du esan nahi militarrek eta gobernuak elkarrengandik urrundu direnik, aitzitik, tropa kopurua handitu egin da eta droga-trafikoaren aitzakiapean destakamendu militar gehiago ireki dira.

Urte honetako martxoan Guatemalako Gatazka Armatuaren garaian Emakumeen aurka egindako Sexu Indarkeriaren aurkako Kontzientzia Tribunalala antolatu zen. Guatemalaren zigorgabetasun handia ikusita, Tribunalala osatzearen aldeko hautua egin zen, zilegitasun legalik ez izan arren, Guatemalan aurrekaririk gabeko ekimen sinbolikoa bihurtuz ekimena.

Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionean, 2010ean 838 emakume izan ziren erailak: Urterik urtera kopuru honek gora egiten du. Halarik ere, oraindik eta salaketa gehiago egin dira eta erakundeek jendartearen eragindako presioaren ondorioz azkenengo 2 urteotan 310 kasu eraman dira auzitegietara, zigorgabetasun kasuen kopurua % 90etik gorakoa izaten jarraitzen duen arren. Neurrigabeko egoera honen beste bi datu adierazgarri dira familia barruko indarkeriaren 51.054 salaketak eta





6

Zer egiten dugu atzerrian

Guatemala

Nazioarteko lanbidetzak Herri Indigena eta emakume antolatuekin

azken 10 urteetan bortizki hil dituzten 5.924 emakumeena.

Era berean, nabarmentzekoa da Aghata ekaitz tropikalaren eta Pacaya sumendiaren erupzioaren ondorioz aurten Guatemala goseagatik zoritxar publikoko estatu izendatua izan dela.

Guatemalan herrialdeko elikadura beharriaz erantzuteko gauza ez den oinarritzko elikagai aleen ekoizpen falta larria dago. Horren ondorioz, oinarritzko elikagai aleak inportatzera behartuak egon dira, eta egoera horrek eta artoaren eta babarrunen prezioaren gorakadak arriskuan jarri ditu elikadura subiranotasuna eta tokiko hazi propioak.

2011 hauteskunde urtearen atarian gaude, jarduteko espazio berriak eskainiko dizkigun urtea.

Egoera honen aurrean mugimendu sozialek, eta batez ere emakumeen eta feministen, indigenen eta nekazarien mugimenduek borrokan jarraitzen dute transnazionalen, neoliberalismoaren, matxismoaren eta arrazakeriaren kontra, eta bizitzeko modu berri baten alde.



Mugarik Gaberen lana Guatemalan

Mugarik Gabek kooperazio eredu berrien aldeko lana egin du aurten, kooperazio kritikoagoa eta politikoagoa indartuz. Kontzientzia Tribunalari babes eman diogu, eta hezkuntza politikoaren eta erakundeen sendotzearen bitartez, mugimendu indigenarekin eta feministarekin lanean jarraitu dugu euren eskubideen aldeko aitortzaren alde.

BISITAK ETA "La Isla" DOKUMENTALAREN EMANALDIA

Azaroan, gurekin lan egiten duten Guatemalako pertsona ezberdinen bisita izan genuen indarkeriaren aurka egindako lana "La Isla" dokumentalaren bitartez ezagutzeko eta zabaltzeko. Era berean, bisita honek Guatemalako Kontzientzia Tribunalaren lana ezagutzera emateko balio izan zuen, bai eta komunikazioan eta sentsibilizazioan egindako lanaren esperientziak partekatzeko ere indarkeriaren aurkako eta lurraldearen defentsaren aldeko borrokaren testuinguruan.

Guatemala / Alemania 2009 85', Zuzendaria: Uli Stelzener

La isla

Sinopsia: XX. mende bukaerako Guatemala: Armadak eta poliziak milaka eta milaka pertsona bahitu eta erail zituen. Eta hala ere, oraintsuko historia amerikarrearantz gertatutako aurrekari gabeko genozidio honek zigorrak jaso gabe jarraitzen du. Isiltasunean eta ustezko frogan faltan oinarritutako zigorgabetasun eta terrore sistema.

2005ean ordea, hiriburuan gertatutako ezusteko leherketa baten ondorioz, Polizia Nazionalaren Artxiboa aurkitu zen. Gaur egun Poliziaren Akademia dagoen gunean zegoen Polizia Nazionalaren komando beldurgarrien kartzela sekretua; La Isla (Uhartera). Bertan, 80 milioi dokumentu baino gehiago aurkitu ziren. Uli Stelzener zuzendaria da gaur artean artxibo horiek filmatzeko baimena lortu duen zinemagile bakarra. Pelikulak tragedia baten istorioa marrazten du eta ezin pentsatzeko krimenak argitzeko beharrezko diren frogak azalazten ditu. Era berean, argitu gabeko euren historiaren soka itogarritik askatzeko nahia duen langile belaunaldi baten irudia osatzen du pelikulak.





El Salvador

Nazioarteko lanbidetzak emakume antolatuekin

Amerikako Estatu Batuekin Merkataritza Askeko Ituna ezarri zenetik lau urte igaro direnean, itunaren eragin negatiboak jendartearengan eta batez ere emakumeengan islatu dira. El Salvadorko biztanleriaren % 52,7 emakumeak dira, eta euretatik herena nekazariak (% 36,44).

Aurretik ere adierazi zen merkataritza askeko itunak enpresa multinazionalen estrategia bat direla euren hegemonia indartu eta euren interes merkantilistak babesteko. El Salvadorreko kasu konkretuan itun hauen ondorioak argiak izan dira; elikadura subiranotasunaren galera, lakaren sektorean lanpostu prekarioak sortu izana eta milioi askoko kalte-ordainen eskaera. Azken honen adibide da "Pacific Rim" enpresak Inbertsioen Gaietako Diferentzien Koponketarako Nazioarteko Zentroan (Centro Internacional de Arreglo de Diferencias Relativas a Inversiones-CIADI) jarritako demanda. Demanda honen bidez enpresa honek El Salvadorko estatuari 77 milioi dolar ordaintzeko eskaera egin zion.

Txirotutako biztanleriarekin konprometitua dagoela dioen estatu batez espero denaren kontrara, El Salvadorreko estatuak Europar Batasunarekin Elkartze Ituna (AdA – Acuerdo de Asociación) izeneko merkataritza itun berri bat negoziatu zuen. Itun honen helburua Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) eta beste herrialde batzuekin jadanik negoziatutako Merkataritza Askeko Itunen arauak gaindituko dituen merkataritza askeko zona berri bat sortzea da, zer eta zerbitzu publikoen liberalizazio eta pribatizazio prozesuetan sakontzeko, baliabide naturalak komertzializatzeko –ura kasu, dagoeneko baliabide bezala merkaturatzeko eta energiaren ekoizpenerako pribatizatu eta ustiatzeko asmoa baitago-, Estatuaren erosketak kudeatzeko eta patenteak zein jabetza intelektuala inposatzeko, guzti guztia Europako enpresa transnazionalen mesedetan.

Gainera, El Salvador 2010 urtearen amaierara iritsi da 2008aren bukaera aldera piztutako eta El Salvadorko jendartea kolpatzen jarraitzen duen mundu mailako krisi finantzarioaren eragina pairatuz. Klase ertaineko jendearen egoera ekonomikoaren kaskartzea izan da mundu mailako krisi finantzario honen ondorio nabarmenena, eta horrek lan aukeren murrizketa eta familien diru-sarreraren gutxitzea eragin du, krisia baino lehenago hartutako konpromiso finantzarioei erantzuteko zailtasunak areagotuz; maileguak, kreditu txartelak, eskola betebeharrak, eta abar.

Dinamika sozialari dagokionean, 2010aren bukaeran hiriburuan udal agintarietako espazio publikotik ordezkaturako merkataritza ez-arautuko sektoreei lotutako bortizkeria kasuak eman ziren. Protesta hauen ordaina mugimendu sozialaren gutxi gora beherako indargabetzea izan da. Indargabetze honek beharbada zerikusia du mugimenduko sozialeko sektore batzuek gobernuan dagoen alderdiarekin duten lotura politikoarekin.

Egoera honen testuingurua epe motzera konponbiderik ez duela ematen duen indarkeria kriminala izan da. 2010 urtean lau mila



“1990an sortu ginen unean bertan, Las Dignas osatzen dugun emakume iraultzaileok emakume duintan eta autonomoak izatea erabaki genuen, gure burua subjektu politiko bezala aitortu, eta posizio horretatik gure burua eta besteak konbentzitu emakumeen mendekotasuna erazteko aldaketak jasotzen ez dituen borroka egiazki iraultzailerik ez dagoela”.



erailketa izan ziren El Salvadorren, herrialde honetako tragedia soziala islatzen duen datua.

Testuinguru honetan El Salvadorreko herritarren arduraren nagusiak ekonomia eta segurtasun eza izatea ez da kasualitatea. Horiek izango dira hain zuzen ere gobernuaren agintarietako 2011an izango dituzten bi erronka nagusiak.

Era berean, emakumeen kontrako indarkeria geldiezia da. Herrialdeko feminizidio kasuak dramatikoak hazi dira azken urte hauetan. Nazio mailako Polizia Zibileko (PNC) datuen arabera, 2010eko urtariletik urrira 496 emakume izan ziren erailak, % 15a 17 urtetik beherako haurrak ziren. Aipatutako erailketa gehienak gainera, basakeri eta ankerkeriaz egin ziren, emakumeenganako gorrotoa eta gutxiespenaren adierazle.

El Salvadorreko Emakumearen Institutuari (Instituto salvadoreño de la Mujer-ISDEMU) estatistikek 2010ean emakumeen kontrako indarkeriaren sei mila salaketa baino gehiago egin zirela jasotzen dute. Nabarmenezkoa da indarkeria kasu hauetatik 4.097 familia esparruan eman zirela, El Salvador emakumeentzako mundu mailako herrialde bortitzena bihurtuz sexu indarkeria eta feminizidio kopuruengatik.

El Salvador

Nazioarteko lanbidetzak emakume antolatuekin

Errepublikako Fiskaltza Orokorra emandako datuen arabera, epaitegiara iritsi ziren 6.803 bortxaketa kasuetatik soilik 436tan zigortu zituzten erasotzaileak, 2.130 kasu ordea, artxibatu egin ziren. Ahultasun instituzional honek emakumeen kontrako indarkeria betikotzen eta elikatzen duen zigorgabetasuna eragiten du.

Etxe barrua da emakumeentzako tokirik arrikutsuena, sexu-indarkeriaren biktimen % 75ak adierazten dute euren erasotzaileak familia kideak izan ohi direla, pertsona ezagunak eta konfiantzakoak. Biktimaren etxean bertan gertatu dira sexu-indarkeria kasuen % 47a.

Gainera, indarkeria sufritzen duten emakumeek justiziara jotzeko duten aukera mugatuak –ia hutsa- eragin zuzena du hildako kopuruan. Errepublikako Fiskaltza Orokorren datuen arabera, eraildako emakumeen 496 kasuetatik 30 feminizida soilik izan dira zigortuak, 277 ikerketa bidean daude eta beste kasuak egoera horretara ere ez dira iritsiko froga falta argudiatuta.

Emakumeen mugimenduak, Emakumeen aurkako indarkeria Ezaren Nazioarteko egunaren testuinguruan, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko baliabideak eta lege esparru bat lortzeko lege proposamen bat sustatu zuen. Emakumeen mugimenduak aurkeztutako eta Emakumearen Garapenerako Salvadorko Institutoak (ISDEMU) babestutako EMAKUMEENTZAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZA BERMATZEKO LEGE INTEGRAL BEREZIAK 85 bozka posibleetatik 75 baiezko lortu zituen. Legeak delitutzat jasotzen ditu feminizidioa, eta feminizidio areagotua eta bestelakoak.



Emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren garaipentzat hartzen da lege hau. Gobernuak lege honekiko izango duen egiazko konpromisoa 2011an egiaztatuko da, ezen eta legeak ekinbide zehatzak behar ditu aurrera aterako bada; emakumeen giza eskubideen arloko zerbitzu egileei zuzendutako hezkuntza (batez ere Belem Do Pará Konbentzioaren eta CEDAW-aren gaineko hezkuntza), biktimen susperraldira bideratutako espezializatutako arreta zerbitzu integralak, indarkeria egoera pairatzen duten emakumeek justiziara jo ahal izateko prozedura zabal eta adiskidetsuetan oinarritutako eskabideen sortzea, indarkeriaren biktimen eskubideen ordaintza eta lehengoratzea lortzeko ekinbideak, eta aurrekontuetatik diru kopuru nahikoa bideratzea Emakumeentzako Indarkeriarik Gabeko Bizitza Bermatzeko Lege Integral Berezia abiarazi eta ezartzeko. Era berean, komunikabideen zeregina ere erregulatu beharko da, bai emakumeen erasotzaile-eredua erreproduzitzeko garaian, bai eta komunikabideek haurren kontrako indarkeriaren kultura elikatzeko duten joeran ere.

Mugarik Gaberen lana El Salvadorren

Las Dignas erakunde politiko feministaren aldeko gure babesa berresten dugu


Las Dignas erakunde politiko feministaren aldeko gure babesa berresten dugu. Erakunde honen helburuak hauek dira; genero diskriminazioak ikusgarri bilakatzea, euren mendekotasuna iraultzeko helburuarekin harremanen eta aukeren esparruan aldaketak erdiesteko emakumeen erakundetze prozesuak indartzea eta politika publikoen esparruan eragitea. 2010 urtean Paz-eko departamentuan erakundetutako emakumeei laguntza ematen jarraitu dugu, bai eta berdintasun lege berri bat erdiesteko kanpaina sustatu asmoz herrialdeko mugimendu feminista babesten ere. Era berean, 2009an Eusko Jaurlaritzak onartutako programaren identifikazioa gauzatu da aurten. Programaren helburua emakume gazteekin lan egitea da euren eskubideen eta hiritartasunaren gauzatzeko indartzeko.

IGNACIO ELLAKURIA SARIA

2010 urtean, eta euren 20. urteurrenarekin batera, gure lankide eta lagunak diren Las Dignas-eko kideek Eusko Jaurlaritzak ematen duen Ignacio Ellacuría garapenerako kooperazio saria jaso zuten.

Sari honen bitartez, erakunde honek pobrezia erazteko eta El Salvadorko jendartea eraldatzeko emakumeen ahduntzearen alde eta talde zein norbanako-hiritartasuna gauzatzearen alde egindako lana aitortzen da. Sari hau Las Dignas erakundeak jaso izana euskal kooperazioarekin egindako lankidetzaren bide luzearen isla da.

Las Dignas erakundeak El Salvadorko Bake hitzarmenaren atarian sortu zen, 1990eko uztailan. 20 urte beraz feminismoak josten eta josturak desegiten.



Garapenerako Lankidetzaren "Ignacio Ellacuría" sariaren II. edizioa

II Edición del Premio de Cooperación al Desarrollo "Ignacio Ellacuría"



Nikaragua

Nazioarteko lanbidetzak emakume antolatuekin

Nikaraguako egoera sozial eta politikoa **antolatutako jendarte zibilaren gehiengoak Daniel Ortogarekiko erakusten duen aurkaritzak** ezaugarritzen du. Presidenteak ordea, bere oinarri elektoraren kohesioa mantentzen du eta biztanleriaren portzentaje handi baten babesa du. Gobernuak sustatzen dituen eta herritarrek asko baloratzen dituzten programa sozial, ekonomiko eta azpiegiturazkoengatik. **Zero Gosea** -Gobernuaren programa entzutetsuenetako bat-, **Zero Lukurreria, Herriarentzako Kale eta Errepideak, Etxebizitza Sozialak eta Teilape Plana,...**

Testuinguru honen eta 2011ko presidentetza-



hauteskondeekiko iguripenen ondorioz herrialdeko erakunde eta mugimendu sozialak –mugimendu feminista barne- bananduta daude; indar politiko alternatibo bat bezala antolatzearen aldekoen eta mugimendu sozial bezala duten jarrera eta agenda mantentzearen aldekoen artean.

Erakunde eta mugimendu sozial guztiek nabarmentzen dute Nikaraguan ezinezkoa dela edozein arlori dagozkion egiazko datuak eskuratzea, emakumeen aurkako indarkeria datuak kasu. Datu ofizialik ez dago eta emakumeen mugimenduak arreta eskaintzen dien eta salatzen diren kasuen gaineko bere datu propioekin egiten du lan... 2010eko ekainean datu ofizialek eraildako emakumeen 17 kasu egon zirela adierazten zuten, Indarkeriaren Aurkako Emakumeen Sareak aldiz, eraildako emakumeak 37 izan zirela baieztatu zuten. "Indarkeriaren Aurkako Emakumeen Sareak" **2010ean** eraildako emakumeen **86** kasuren berri izan zuten.

Salaketa hau ez da soilik erakunde eta mugimendu sozialena, nazioarteko agentziek ere bat egiten dute eskaera honekin. Horren adibide argia da bertsio ofiziala zalantzan jartzen zuten datuak argitaratzeagatik UNICEF erakundeko funtzionario bat pertsona "non grata" izendatu izana.

Nikaraguako Gobernuaren eta nazioarteko gobernu eta agentzien arteko tira-birek azken udal hauteskundeetan emandako hauteskunde iruzurraren salaketan dute jatorria. Salaketa honek kooperazio europarrarekiko harremanak gaiztotu zituen, batez ere Europako iparraldeko kooperazioarekin, beren bereziki Suediako





NiKaraGua

Nazioarteko lanbidetak emakume antolatuekin

enbaxadorearekin. Ortegaren Gobernuaren eta Nikaraguan kokatutako nazioarteko kooperazioaren arteko tira-bira hauen ondorioak nabarmenak izan dira 2010ean; aurrekontu-laguntzaren etendura Europar Batasunaren eskutik eta Milurtekoaren Erronka Kontuaren blokeoa (Cuenta Reto del Milenio) Amerikako Estatu Batuen eskutik.

Ohiko agentzien eta kooperazio-kideen lana alboratuta, Venezuelako fondoak dira gaur egun aldebiko finantzaketaren diru-iturri nagusia. Banku zentralaren arabera, 2007an herrialdean ingresatutako fondo ofizial guztiaren % 17^a Venezuelako finantza-fluxuari zegokion, % 36,9a 2008an eta % 40,4a 2009an. Fondo venezuelarren norabidea eta kudeaketa barne-kontrol alderdikoiak eta

berarekiko mendekotasunak soilik arautzen dute.

Iturria: "Cinco Perspectivas Suplemento de análisis político" boletina, 47. zenbakia, 2010eko iraila

Azkenik, azpimarratzekoa da urte bukaeran Costa Ricarekiko mugan bizi izandako tentsioa, Gobernuak egoera hau hiru lege berri onartzeko probestu baitzuen. Defentsa Nazionalaren Legea, Mugen Erregimen Juridikoaren Legea eta Segurtasun Nazionalaren Legea. Komunikabideek, antolatutako jendarte zibilak eta oposizioko sektoreek zalantzan jarri dituzten lege hauen bitartez Gobernuak eta Armadak botere eta eskumen gehiago eskuratu dituzte. Gainera, lege hauek tramitatzeko eta onartzeko hautatu den momentua eta izandako urgentzia argitu beharreko kontuak dira.

ALDEANIZTUNAK			ALDEBIKOAK			ALBA VENEZUELA		
2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
525.8	607.2	607.2	526.1	638.9	499.6	185	461	443

Iturria: BCN (Nikaraguako Banku Zentrala), milioi dolarretan. Dohaintzak eta maileguak barne.

Mugarik Gaberen lana Nicaraguan

Testuinguru honetan, landa eremuko emakumeen erakundeen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, norbanakoaren eta taldearen esparruan ikuspuntu integral batetik emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren eta mendekotasunaren aurka borrokatzen dutelako.

Malpaisilloko **Xochitl Acatl** emakume zentroaren programa guztiak babesten jarraitzen dugu: 2010ean nabarmentzekoak dira landa eremuko hiritartasunaren eraikuntzari eta emakume heldu zein gazteen ahalduntzeari zuzendutakoak. Lan guzti hau, hezkuntza sailean emakume gazteekin, eta parte hartze sailean liderrak diren emakume helduekin egiten da, bai eta komunitateko liderrak diren gizonezkoekin ere.

Gure erakundeak **Landa-eremuko Emakumeen Komitearekin (Leon)** egiten zuen lana etetzeko erabakia hartu zuen 2009an. 2010 urtean erakunde honekin egiten genuen lana hedatu beharrean martxan zeuden proiektuei jarraipena egin diegu guztiak itxi ditugun arte.



Masayako **Axayacatl** eta **Axayacatl madre tierra** erakundeekin batera abiatutako gure lehen proiektua amaitu genuen. 2009an gertatutako bi erakunde hauen banaketaren ondoren, 2010ean harremana bi erakundeekin mantendu dugu. Horretaz gainera, **Axayacatl madre tierra** erakunde lagundu dugu Sal y Luz taldearen dohaintza batekin. Urteko jarraipen bidaian bi erakundeak bisitatu ditugu etorkizunean erakunde bakoitzarekin garatu asmo ditugun estrategia zehazten hasteko.



Kuba



Azken hilabeteetan, iritzi eta eragile aniztasun handiko maila altuko eztabaidek lagunduta, hainbat prozesu berritzaile abiatu dira irlan. Emakume eta gizon kubatarrek aldaketak galdegiten dizkiote gobernuari, baina era berean kanpoko esku hartzeak errefusatzan dituzte. Kubako jendartea izan behar da aldaketa hauek era kolektibo eta parte hartzaile batean adostu behar dituenak.

Kuba aldatzen ari da: gobernuak lurrak banatzen ari da, Estatuko langile kopurua murrizten, norberaren konturako lana handitzen, enpresa pribatu txikia baimentzen, Eliza katolikoarekin elkarrizketak izaten, heriotza zigorrak konmutatzen eta preso politikoak askatzen. Herritarren gehiengoak erreforma hauetatik asko beharrezkotzat jotzen ditu, batez ere ekonomian aldaketak eragiten dituzten horiek (Txinako eredura jotzen ari dela ematen du); ministerioen erreforma eta ondoriozko funtzionarioen murrizketa (milioi erdi 2011an eta milioi bat gehiago ondoren) eta gastu sozialaren doitzea eta arrazionalizazioa (osasunean batez ere). Halarik ere, Kubako herritarrek erreforma hauek, ezartzeko moduaren arabera, arriskua ere badutela pentsatzen dute, biztanleriaren artean gerok eta handiagoak diren desberdintasunak sor ditzaketelako, desabantailak eta emakumeentzako ez-ordaindutako lan kargaren handitzea batez ere.

Nazioarteko lankidetzaz: Kuba

2011ko apirilean ospatzekoa den Alderdiko Kongresuaren gai nagusia herrialdearen norabidea zehaztuko duen ildo ekonomikoaren gaineko eztabaida da hain zuzen ere. Proposamenak Iraultzan inoiz ezagutu ez den irekiera ekonomikoa planteatzen du. Neurri hauek auzo guztietan, lantokietan eta beste hainbat guneetan eztabaidatuak izaten ari dira. Neurriak eurak baino, neurriak ezartzeko moduaren gainekoak izaten ari dira eztabaida bizienak.

Martxan dagoen herrialdeko inbertsio guztien planifikazio zentralizatzaileko politikarekin eta zenbait erreforma ekonomikoren ezarpenarekin bilatzen diren helburuak gaur egun horniketak gabe dagoen bertako merkatuaren hobekuntza eta azken bi urteotan galdutako kaudimen finantzarioa lortzea dira. Epe motzera moneta bikoitza kentzearen aukeraz ere hitz egiten ari dira, CUC-a desagertu eta soilik peso kubatarra egoteko aukera desiratuz.





Kuba

Aurrerantzean erosketa eta inportazio guztiak aurreikusita eta onartua dagoen Ekonomia eta Planifikazio Ministerioaren Plan Nazionalan jasota dagoenarekin koherenteak izateko ahalegina egiten ari da merkaturan eskuragarri egongo direla bermatzeko. Gainera, inportatzen diren baliabideei eman ahal zaien mantentzearen bidez euren balio-bizitza luzatzea da asmoa. Horren ondorioz, orain lehen baino korapilatsuagoak dira eskaintza eta erosketa prozesuak. Eskakizun berri hauen eta ministerioen berregituratze eta bategiteen ondorioz tramite berrien eskakizunak



Nazioarteko lankidetzaz: Kuba

agertzen ari dira; burokrazia eta konplexutasun handiagooa alegia. Egoera honek gainera, nazioarteko kooperazioari ere eragiten dio, proiektuen egikaritzea geldoagoa eta zailagoa bilakatzen baitu.

Beste alde batetik, sustatzea lortzen dugun proiektu bakoitzak eragin handia izaten du kooperatibetan, bere etorkizunean, produktibitatean, dibertsifikazioan, nekazaritza ekologikoko praktiken jabeakuntzan, ondo egindako lanaren harrotasun eta estimuan, soldata-mailaren hazkunde nabarmenean, eta abar. Gurekin lan egin duten kooperatiben egoera hau bada ere, herrialdean beharrezkoa da azukre-sektorearen birmoldaketarekin jarraitzea, lanean ari diren etxalde eta kooperatiben ekoizpena handitzea eta dibertsifikatzea, elikagaien ekoizpenari lur-eremu handiagoak eskaintzea (bertan ekoitzi daitezkeen elikagai asko oraindik ere inportatzen dira), nekazaritza ekologiko laguntzeko arlo honen ikerketan inbertsio handiagoa egitea, eta abar.

Turismoa ere handitu egin da aurten, 2 milioi pertsona hain zuzen ere, baina biztanleko (per capita) gastatutako diru kopurua aurreko urteetan baino txikiagoa izan da. Hobetu beharreko lehentasuneko arloak dira etxebizitza eta garraioa.



Mugarik Gaberen lana Kuban

Mugarik Gabek azukre-sektorearen birmoldaketaren, **elikadura subiranotasunaren**, eta gure kideengan eta milaka kooperatibengan **genero ikuspuntua** txertatzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, landa eremuko egungo kultura matxista eraldatu eta emakumeentzako berdintasun eta justizia egoera bat erdiesteko gure ekarpena eginez. Herrien elikadura subiranotasun apustu politiko bat eta ingurugiroarekiko justua den alternatiba soziala dela pentsatzen dugu, eta zentzu horretan **hegoaldeko** eta **iparraldeko** nekazarien erakundeen arteko **aliantza tekniko eta politikoak** sortzeko lan egiten dugu, biek ala biek

lurra, nekazari bizimodua eta elikadurarako giza-eskubidea hiltzen duen nekazaritza elikadura sistema industrial eta globalizatuaren ondorioak pairatzen baitituzte. Azken urte honetan elikadura subiranotasunaren esparrutik kanpokoak diren eta Mugarik Gabeko helburuekin bat egiten duten beste erakunde batzuekin lan egiteko aukera aztertu dugu, mugimendu sozialekin lotura duten horiekin, batez ere mugimendu feministari eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokari lotutako erakundeekin.



Kolombia

Nazioarteko lanbidetzak Herri Indigenekin



Kontraesankorra ematen badu ere, Uribek Gobernuaren utzi zuen bakearen eta giza-eskubideen alde egindako lana aitortzen zuten nazioarteko hainbat sari jasota, baina Segurtasun Departamentuaren (DAS) legez kanpoko entzuketan gainera prozesu judizialean jasotako ikerketa eta adierazpenei esker jakin izan dugu Espainian ere gertatu zirela entzuketak horiek eta presidente ohia ere zipriztindu dutela.

Gobernu-aldia bukatu baino lehen, erakunde indigena berri bat sortu zen gobernuaren laguntzaz, OPIC erakundea. Erakunde honek Cauca hasi du bere jarduna, zer eta mugimendu indigena ahuldu eta zatitzeko helburuarekin.

Presidentetza hauteskundeetan Juan Manuel Santos izan zen garaile, baina alderdi berri baten indarra ere nabarmendu zen; La Ola Verde, politika egiteko modu alternatiboak dituen joera neoliberalerako alderdia.

Segurtasun demokratikoarekin jarraitzea da Santosek proposatzen duen bidearen ardatza, baina giza eskubideen errespetuan eta erakunde zein mugimendu sozialekiko elkarrizketan oinarritutako diskurtso bat garatuz. Abuztuan gobernuaren ardura hartu zuenetik keinu eta diskurtsoak errealitate bihurtuko ote direnaren zalantza oso hedatua dago, eta eszeptizismoa da nagusi. Berak sustatutako Meatze-garapenerako Planak batez ere erakunde indigenak jartzen ditu kolokan.

Aurtengo lorpen nabarmenetako bi dira herri indigenen hezkuntzarako autonomiaren aitortza Hezkuntza Ministerioaren partetik, eta Antioquiako Unibertsitateko titulu ofizialen artean Ama-lurraren Pedagogia Lizentziatura onartu izana.

Kolonbian zazpi base militar berri ezartzeko Amerikako Estatu Batuekin hitzartutako akordioa gelditu dago momentuz, Konstituzio Gorteak blokeatuta, Kongresuaren berrespena eta Gortearen beraren alde aurreko kontrola behar dituelako.





Kolonia

Nazioarteko lanbidetak Herri Indigenekin



Mugarik Gaben lana Kolonbian

Antioquiako Erakunde Indigenaren (OIA) Gobernu eta Administrazio Eskolaren lehenengo promozioa ondo gauzatu da. 2011n bigarren promozioari ekingo zaio, bai eta Amaluraren Pedagogia Lizentziaturaren espezializazioari ere. Bigarren promozio honetan era berezi batean sustatuko da emakumeen parte hartzea, deialditi bertatik hasita, prozesu guztian zehar. Genero ikuspegia txertatzeko Lizentziatura bera ere berrikusiko da.

Leku Sakratuen Defentsarako kanpaina komunitateetan gauzatu da barne mailan, bai eta nazioartean ere hiru bira eginez. Nafarroako Parlamentuak, Arabako Foru Aldundiak eta Donostiako Kooperazio Kontseiluak egoera salatu eta herri indigenen eskubideen errespetua exijitu dute.

Bestalde, CRIC kontseilua lanean ari da hezkuntza propioaren gaineko eskumena bere gain hartzeko. Goi mailako arloari dagokionean, aurrera pausuk eman dira bigarren genero diplomaturarekin eta berehalako errealitateari erantzuteko helburua duten prestakuntza berrieekin, Meatzte Diplomatura abiaraztea besteak beste.

2010eko azaroan Komunikazio Indigenaren Gailur Kontinentala egin zen Cauca, eta Abya Yala guztiko herriek parte hartu zuten bertan. Gailurrak herri indigenen komunikazio lana bateratzeko eta sustatzeko balio izan zuen.



Sarrera

Kolonbian, orain dela 45 urte baino gehiago giza, politikoa eta armadaren gatazka dago. Giza Eskubideen borrokan ari dira eta horien ondorioak hauek dira:

- Errefuxiatu eta mugitu izan diren 4 milioi pertsona baino gehiago, beraien lurralde lapurtu eta erropatutako izandira.
- Amariak daukaten 30.000 pertsona desagertu eta 3.000 bahaketa burutu dituzte.
- Milaka ekizuko extrajudizial Indar Publikoaren esku.

Horrela, gatazka ezaztu egiten da eta honen ondorioz Egia, Justizia eta Giza Eskubideak kalte egiten dira. Hurrelaxe, Giza Eskubideak defendatzeko lan egiten ari diren pertsonak, indigenak, sindikalistak... matxistatuak daude, inpuritate dago.

Zer da Kolektiba Colombia eta zertarako jalaritzek da?

KOLEKTIBA COLOMBIA Giza Eskubideak eta Kolonbiarekiko Elkartasun Iniziatiba izateko hainbat erakundek osatzen dute, besteak beste: COLECTIVO BACHUE, CEAR-RUIBADA, POSADA DE LOS ABRAZOS, MUNDUBAT, PAZ CON DIGNIDAD ETA MUGARIK GABE.

Talde hau 2.000en jaiotzean, hurrengo heburutik:

- Kolonbian gertatzen diren Giza Eskubideen borrokan erabiltzea eta sustatzea.
- Hango herrietarrek elkartasuna izatea: komunitate indigenak, nekazariek, emakumeak, sindikalistak, beraien paktuetan diuzten Giza Eskubideen borrokan baita.
- Inpuritate egoera eskiduzin laguntzea, giza justiziarako bidea hartzea.

Zer eskatzen ari gara?

- Kolonbiako Estatuari**
- 1 Populazio Zibilarekiko begirunea, beraien lurralde eta eskubideen errespetua.
 - 2 Egia, justizia eta egoeraren konponketa, Gatazka eta Estatu-baldintza zuzentzea.
 - 3 Mugituak izan diren pertsonen beraien lurralde izateko eta lurralde horietan eskubideak izatea.
 - 4 Giza Eskubideen borrokatzen inpuritate darduen pertsonen justizializazioa.
 - 5 Barnuko Gatazka eszugaritzea.

Estatuarekiko Estatuari

Kolonbian lan egiten ari diren Enpresa Transnaziionalak murrizteko.

Asilo, harrera eta babesa Eskubidearekiko begirunea, errefuxiatu moduan hartzen diren beldurrik hobetzeko.

Gure Ekintzak

- Euskal Herriko Erakunde Publikoetan inaziduzte egitea: Giza Eskubideen defendatzaile duden konpromisoa indartzeko.
 - Euskal Herriko herrietarrei zuzendutako sentalitatezko ekintzak: besteak beste: Hitzaldia, topaketak, elkartasuneko konzentrazioak...
 - Kolonia indatzen ari diren Giza Eskubideen Urteko Misiak indartzeko.
 - Kolonbian Giza Eskubideen egoerari buruko Urteko Informazio egiteko laguntza eman.
 - Eskiduzin erabiltzen diuzten pertsonentzako Babesa Programak sustatzea.
- KOLEKTIBA COLOMBIA** COLECTIVO BACHUE, CEAR-RUIBADA, POSADA DE LOS ABRAZOS, MUNDUBAT, PAZ CON DIGNIDAD, MUGARIK GABE.

OIA eta ACIN, 2010eko festivalaz geroztik, CLACPI Koordinakundeko (Herri Indigenetako Zinema eta Komunikazio Koordinadora Latinoamerikarra) partaide dira. Hurrengo festivala Kolonbian ospatuko da.

Kolektiba Kolonia Plataformak jendarteari eta euskal erakundeei zuzenduriko sentsibilizaziorako eta eragite politikorako hainbat ekimen antolatu ditu aurrean. Datorren urterako erronka giza-eskubideen defendatzaileen aldi baterako harrera programa antolatzen hastea da.

Kolonbian Giza-eskubideak defenditzeko eskubidearen alde eta zigorgabetasunaren aurkako borrokan gainera HITZALDIA

- Manuel Guillermo Jaimes, Kolonbiako Ikasle Unibertsitarioren Elkarteko (Asociación Colombiana de Estudiantes Universitarios)
- Alfonso Javier Arrázola Molineros, SINCONTAXCAR- CUT Cartagenenako Taxi Gidarien Sindikatuko buruzagia (Sindicato de Conductores de Taxis de Cartagena), Kolonia.
- Javier Alfonso Orozco Peñaranda, Kolonbiako Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Programa Asturiarraren Koordinatzailea, Asturiasko Printzerriko Gobernuak.
- Moderatzailea: Amparo Pimiento, Posada de los Abrazos elkarteko kidea
- Azaroak 23, 19:30-21:00 • Hikaateneo (Ibeni, 1 behea, Bilbo)



CABYA YALA HERRIETAKO KOMUNIKATZAILE INDIGENEN GAILUR KONTINENTALA, resguardo INDÍGENA de la maria, piendamó, cauca, COLOMBIA, 2010eko azaroaren 8tik 12ra

ZERGATIK PARTE HARTU DU MUGARIK GABEK GAILUR HONETAN?

Abya Yala herrietako Komunikatzaile Indigenen Gailur Kontinentalaren konpromisoa (Cauca, Kolonia 2010) Alaskatik Suaren Lurraltera arteko komunikatzaile indigena guztiekin berriz ere biltzea zelako herri indigenen berezko komunikazioa artikulatzeko eta sustatzeko herri indigenen mundu-ikuskerara eta ohiturak aintzat hartuta. Mugarik Gabek urteak eman ditu herri hauen jarraikortasuna eta iraupena bermatzeko komunikazioa oinarritzko ardatza dela aldarrikatzen.



Bolivia

2005etik ezkerreko sektoreak eta mugimendu indigena biltzen dituen MAS plataformak zuzendutako herrialdearen aldaketa prozesuan eragina izan duten hainbat gertaera eman dira 2010 urtean.

Alde batetik, eta apirilaren 4ean egin ziren udal eta departamentu hauteskundeak egungo aldaketa prozesuak duen babesaren adierazle badira, sektore sozial zabalak aldaketa honen alde egiten duen apustuaren adierazle garbia direla ikusiko dugu. Halarik ere, aurreko urteetatik zamaten ari ziren arazoei –oligarkia tradizionalarekiko enfrontamenduen jarraipena, enpresa multinazionalen presioa eta egungo krisi finantzarioa Bolivian izaten ari den eragina-, 2010ean agertutako mugimendu indigenaren eta ezkerreko sektoreen arteko liskarrak gehitu behar zaizkio. Bi ideologia hauen arteko talka nabarmen azalerazi zen Boliviako estatuaren eraikiberritze prozesuan. 2009an idatzitako egungo Konstituzioak bi aldeen babes zabala jaso bazuen ere, Konstituzio berri horretan jasotako printzipioen gauzatze praktikoan (bigarren mailako legeria eratzeko orduan) sortu ziren desadostasun nagusiak. Bi sektoreen arteko tentsioa sortzen ari diren arrazoen artean, "indigenen jatorrizko lurralde nekazarien" zedarritzea eta "ekonomia sozial eta komunitarioa" izena duen eredu ekonomiko berriaren ezarpena daude. Aipatu eredu ekonomikoa, praktikan, erazketa sistemara zuzentzen ari da berriro, enpresa transnasionalekin berriz ere negoziatzen ari diren akordioen bitartez. Boliviako mugimendu sozialen

Nazioarteko lanbidetzak Herri Indigenekin



indarraren isla ere badiren erakundeen arteko tentsio hauek agerian geratu ziren pasa den uztailaren 22an; Boliviako Herri Indigenen Konfederazioak (CIDOB) gobernuarekin zuen elkarriketa prozesua hautsi zuen gobernuak ez zituelako jatorrizko herrien eskaerak aintzat hartu.

Banaketa honi, MAS plataformaren sektore ofizialisten eta ez ofizialisten arteko urruntze iraunkorra gehitzen zaio, gobernuan den alderdiaren oinarri soziala oraindik eta gehiago hustuz. Era berean, nabarmentzekoa da erregaiaren prezioaren % 50eko igoera onartzen zuen abenduaren 26ko dekretuaren promulgazioak ezinegon giro nabarmena sortu zuela urte bukaeran, eta horren ondorioz garraioren sektoreak mugagabeko greba iragarri zuela.



Mugarik Gaberen lana Bolivian

2010 urtean CEFRECEkin batera lan egiten jarraitu dugu komunikazioaren esparruan, nazioaniztun estatuaren sortze-estuinguruan herri indigenen parte hartzea indartzeko tresna dela ulertzen dugulako. 2007an abiatutako proiektuei (AECID Hitzarmena eta Eusko Jaurlaritzaren programa) 2009an formulatutako proiektuen gauzatzea gehitzen zaie, hauek besteak beste: "Eskubideen, generoaren eta komunikazioaren alorrean lidergo indigenarako Hezkuntza Orokorrerako Eskola" (Eusko Jaurlaritza), "Ikus-entzunezko komunikazioaren Emakume indigenen gaitze aurreratu Bolivia hegoaldean eta amazonako ekialdeko eskualdean" (Bilboko Udala) eta "Giza-eskubideen arloan erakunde indigenen indartzea" (Gipuzkoako Foru Aldundia). Azken proiektu honi dagokionean, nabarmentzekoak dira nazioaniztun estatuaren sortze prozesuaren estuinguruan kokatzen diren maitatzean egindako Jardunaldiak. Estatu espainiarrean indarrean den autonomia sistemaren indarguneak eta mugapenak aztertu, eta Bolivian zein Ekuadorren ematen ari diren egoerei sistema honek egin ahal dizkion

ekarpenak aztertze baliatu ziren jardunaldi hauek. Bi herrialde hauetako ordezkariak eta Guatemalatik etorritakoek ere parte hartu zuten jardunaldietan. Guatemalan nazioaniztun estatuaren ideia ez da alderdi politiko hegemonikoen agenda politikoetan sartzen, bai ordea erakunde sozialean, izan erakunde hauek indigenak edo ez.

CEBREC eta Mugarik Gabe erakundeek, kooperazio bide berri bat irekiz, "Komunikazioaren Agentzia Nazioaniztuna" sortzeko proiektua aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzan. Hainbat erakundek egin dute Agentzia honen aldeko apustua, hauek besteak beste: Boliviako Herri Indigenen Konfederazioa (CIDOB), Boliviako Langile Nekazarien Konfederazio Sindikala (CSUTCB), "Bartolina Sisa" Boliviako Emakume Indigena Nekazarien Konfederazio Nazionala (CNMCIQB "BS"), Qullasuyo-ko Ayllus eta Markasen Kontseilu Nazionala (CONAMAQ) eta Boliviako Komunitate Interkulturalen Konfederazioa (CSCIB).

**2010. URTEAN ONARTUTAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO PROIEKTUAK**

INSTITUZIOA	TOKIKO BAZKIDEA	HERRIALDEA	PROIEKTUA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
2010				
Bilboko Udala	Las Dignas	El Salvador	El Salvadorko emakumeok egiazko berdintasuna nahi dugu	173.068,00
GFA	Las Dignas	El Salvador	Euren gorputzak eurenaganatzen eta euren eskubideak aldarrikatzen dituzten emakumeak	145.663,00
Eusko Jauriaritza	Xochilt Acalt	Nikaragua	Hiritartasunaren Eratzeari eta landa-eremuko herritarren ahalduntzeari laguntza Larreynagako herrian, batez ere emakume heldu eta gazteei.	582.183,00
Eusko Jauriaritza	ACPA	Kuba	Songo-La Maya: Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena eraldatzeko erreferentziatzko eredu - II. Fasea.	352.552,00
BFA	ACPA	Kuba	Cienfuegos herrialdean autokudeatutako abeltzaintza kooperatiben garapenerako laguntza.	167.800,00
Eusko Jauriaritza	OIA	Kolonbia	Antioquiako herri emberaren autonomiaren sendotzea. II. Fasea	479.892,00
Donostiako Udala	OIA	Kolonbia	Gobernu eskolan eta administrazio indigenan Antioquiako emakume indigenen parte hartzeari laguntza.	30.395,07
DFG	OIA	Kolonbia	Eskoletan genero ikuspegia zeharka txertatzeko egitasmoari laguntza.	2.000,00
Eusko Jauriaritza	CEFREC	Bolivia	Kultur arteko Elkarrizketa eta Boliviako herri indigenen eskubideen betetzea bermatzeko helburua duen Nazioaniztun Komunikazio Agentziaren finkatzea.	483.247,00
AECID	GGKE Partzuergoa	Est. Espainiarra	Herri indigenei zuzendutako egitasmo eta politiketan giza-eskubideen ikuspuntua txertatzeko erremintak	200.000,00
Eusko Jauriaritza	Sector Mujeres	Guatemala	Politika Feminista garatzeko emakumeen gaitasunen indartzea	321.655,00
BFA	UKUXBE	Guatemala	Guatemalako herri indigenen komunitate egituraketaren indartzea.	147.000,00
GFA	ASECSA	Guatemala	Erakunde sozialetan gaitasun politiko-metodologikoa, genero berdintasuna eta identitateen eraketa indartzea	145.545,00
BFA	Sector Mujeres	Guatemala	Guatemalako 6 departamentutan Emakumeen Sektorekoak diren erakunde eta emakumeentzako larrialdi arreta	41.200,00
				3.272.200,07



Zer egiten dugu gure inguru hurbilean

17

HEZKUNTZA

15. Zinema eta Kooperazio Emanaldia

Zure Vision Social Vision

ERREALITATEAK PARTEKATUZ, ERALDAKETAK SORTZEN

Hezkuntza eta sentsibilizazioari dagokionean 2010an egin dugun lanean bi prozesu paralelo bizi izan ditugu; alde batetik kanpora begira garatu dugun hezkuntza eta sentsibilizazio lana, eta bestetik barne mailako hausnarketa prozesu bat. Bigarren honetan, eskaini nahi dugun Hezkuntzari buruzko hausnarketa egiteaz gainera, gure plan estrategikoaren esparruan garatu asmo ditugun prozesuen gogoeta egin dugu.

Zentzu horretan, eta duela 16 urtetik urtero egiten dugun bezala, Zinema Emanaldia antolatu genuen lehen hiruhilekoan. Aurtengo edizioaren goiburua "**Errealitateak Partekatuz, Eraldaketak Sortzen**" izan da. Emanaldia aldi berean Bilbon, Gasteizen eta Donostian eskaini zen, beranduago Irunen, eta azkenik urte bukaeran gure lurraldeko beste 20 herritan.

Aurtengo emanaldiaren helburuak Herri Indigenen errealitateak ikusgai jartzea eta egoera horien gaineko hausnarketa zabaltzea izan dira, indar berezia eginez komunikazioak emakumeak ahalduzko eta garatzeko tresna bezala duen garrantzian, nazioaniztun estatuetan eta enpresa multinazionalak lurralde indigenetan duten eraginean. Emanaldi hauek Herri Indigenetako Zinema eta Komunikazio Koordinadora Latinoamerikarrarekin (CLACPI) elkarlanean antolatu ditugu, eta eurretan Abya Yalako herri indigena ezberdinetako 2 emakumek eta 3 gizonak osatzen duten CLACPI-ko batzorde koordinatzaileak ere parte hartu zuen.



3. Nazioarteko Spot Sozialen Lehiaketa

Emanaldian, zinema saioez gainera, Hausnarketa eta Eztabaida mahainguruak ere antolatu genituen. Saioa hauetan, CLACPI-ko kide ezberdinek, Antioquiako Erakunde Indigenako (Kolonbia) kide batek, Guatemalako Uk'u Bé-eko kide batek eta Boliviako Bartolina Sisa Konfederazioko beste kide batek ere parte hartu zuten. Gure helburua, gonbidatutako pertsonen planteatutako gaiak ezagutu eta euren gaineko hausnarketa egiteaz gainera, errealitate horiek gure inguruan ematen direnekin lotzea zen, antzekotasunak bilatu eta komunak diren puntuak bilatzea ikuspegi orokor bat eskuratu ahal izateko. Langintza horretan laguntzeko, Kazetarion Berdin Sareko eta OMAL (Latinoamerikako multinazionalen behatokia) Behatokiko kideen parte hartzea izan genuen emanaldietan.

Lehenago aipatu bezala, herrietan egindako lana indartu dugu aurten, ez soilik emanaldia herri gehiagotara eramane dugulako, baizik eta eurretan jasotako erantzuna ere oso ona izan delako. Herri eta hirietan egin ditugun emanaldietan 3.000 lagun

baino gehiagok parte hartu dute. Nabarmenezkoa da gainera saio hauetan gizon baino emakume gehiagok parte hartu dutela. Zinema emanaldietatik nabarmendu beharreko beste alderdi bat komunikabideetan izan dugun presentzia izan da, ez soilik emanaldiak iragartzeko, baizik eta lantzen ditugun gaietan sakontzeko ere. Horrela, hirietako emanaldiek iraun zuten bi asteetan eta herrietako emanaldien 4 hilabeteetan 30 hedabide baino gehiagotan parte hartzeko aukera izan dugu.

Aurten hirugarren aldiz antolatu dugu Zurevision Social Vision Spot Sozialen Nazioarteko Lehiaketa, eta gure zinema emanaldian zabaldu ditugun 36 lan jaso ditugu. Lehiaketa honen bitartez zabaldu nahi izan dugun ideia guk guztiok gure kezka sozialak era arin eta sortzaile batean ikus-entzunezko euskarri batean islatzeko eta komunikatzeko gai garela da. Publikoak emandako Spot Sozial onenaren saria Pablo Galera Pérezen eta Guillermo Molinaren "África sirve" (Afrikak balio du) lanak jaso zuen, eta Epaimahaiak emandako saria, Eduardo Vicente Mivullaren "Lagrimas" (Malkoak) lanak jaso zuen.



hitzaldiak sariak lehiaketak zinema emanaldia



hausnarketa mahaiak emakumaaren martxa

Zentzuz Kontsumitu proiektuaren bidez, beste erakunde batzuekin lanean jarraitzen dugu kontsumo kontziente eta arduratsua, elikadura subiranotasuna eta bidezko merkataritza sustatzen. Urte hasieran "consumoresponsable.info" **bloga** sortu genuen gai honen inguruko interesa duten pertsona guztiek antolatzen ditugun ekimenen berri izan dezaten eta hezkuntza-material ezberdinak eskura izan ditzaten. "Kontsumo kontziente eta arduratsu baterako Gasteizko kale-izendegia" eta "Txanogorritxuren saskia" ipuina besteak beste. Zentzuz Kontsumitu proiektuaren bitartez Gasteizen garatzen ari garen prozesua etorkizunean hezkuntzaren arloan planteatu nahi ditugun erronka berrien adibide egokia da duen prozesu izaeragatik hain zuzen ere.

Hasieran azaltzen genuen bezala, urte guztian zehar egin dugun barne lana oso aktiboa eta iraunkorra izan da. Emandako hausnarketa prozesu guzti hauen ondorioz Mugarik Gabek adostu egin du zein Hezkuntza mota garatu nahi duen.

Gure erakundean HEZKUNTZA horrela ulertzen dugu:

gure ahalduntzean, emantzipazioan eta autonomia pertsonalean oinarrituta, jendarte kapitalista eta patriarkala, justuagoak, anitzagoak, bidezkoagoak, eta jasangarriagoak diren ereduetan eraldatzeko gai den subjektu politiko bilakatuko gaituen epe erdi/luzeko prozesua da hezkuntza. Definizio honetan ondoko kontzeptuak bildu nahi ditugu: justua eta bidezkoa den jendarte / autonomia pertsonala / jendarte ereduak / koherentzia / jasangarritasuna / kontzientzia kritikoa / pertsonen emantzipazioa / tokiko errealitatea eraldatzeko boterea duen pertsona aktiboa eta subjektu politikoa.

Helburu hauek lortzeko, aurtun denbora asko eskaini diogu lantaldearen talde-hezkuntza indartzeari; horretarako hain justu, ikasitakoak pertsonalki eta talde bezala barneratu eta politizatu ahal izateko, kanpora begirako diskurtso huts bilaka ez daitezen eta benetako gauzatze batean bilaka daitezen; "guk horretan sinesten dugu eta horren alde lan egiten dugu". Barne lan hau egin dugun bitartean, bestelako Hezkuntza proposamen berriak abiarazi ditugu;

narbarmentzeko modukoa da "**Indarkeria Matxista guztiei aurre egin. Patriarkaturik Gabe Denok Jabe**" kanpaina. Kanpaina honen helburua emakumeen kontrako indarkeria matxistaren forma ezberdinak ikusgai jartzea da.

Indarkeria Matxista horrela ulertzen dugu:

Emakume eta gizonen arteko botere harremanen ezberdintasunaren testuinguruan, emakume izate hutsagatik emakumeek pairatzen duten edozein indarkeria adierazpen. Kanpaina honetan, sistema patriarkal menperatzaileak emakumeen kontra indarrean mantentzen duen eta egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kultural guztietan islatzen den egiturazko indarkeriari buruzko hausnarketa egin nahi dugu.




Kate Millett-en Política sexual lanean hau irakurri dezakegu: «Ez gaude ohituak patriarkatua indarrarekin erlazionatzera. Bere jendarteratze sistema horren da perfektua, horren indartsua da bere balioen onarpen orokorra, eta horren luze eta unibertuala da bere historia jendartean, ezen eta apenas duen indarkeriaren beharrik. (...) Arrazismoa eta kolonialismoa bezalako beste ideologia menperatzaileak bezala, jendarte patriarkalak ez balu indarkeriaren babesa izango –eta ez soilik larrialdietarako neurri bezala baizik eta beldurrarazte iraunkorrerako baliabide bezala-, ezingo luke jendartearen gaineko behar adinako kontrol eraginkorrik izan». Testuinguru honetan emakumeen aurkako indarkeria ez da gertaera soil bat, ez da erasotzaile baten eta biktima baten arteko arazo pertsonala, testuinguru honetan indarkeria adierazpen hau emakumeen aurkako egiturazko indarkeri bilakatzen da. Indarkeriaren erabilpenak sexu-ezberdintasunean oinarritutako sistema indartu eta elikatzen du».

Kanpaina abiatzeko dokumental bat grabatu dugu El Salvador, Guatemala eta Euskal Herrian. Lan honetan, hainbat emakume feministek indarkeri adierazpen hauen inguruko hausnarketa egiten dute, bai eta havei aurre egiteko dituzten estrategiak planteatu ere. Agerikoa denez, dokumental honetan ez dira dauden proposamen guztiak jasotzen, baina gaian sakontzeko lehendabiziko urrats egokia dela iruditzen zaigu. **Martxan-En Movimiento** izena duen dokumental hau 2011ko otsailean estreinatuko da Donostian eta urtean zehar herrietan zein hirietan egingo ditugun Zinema Emanaldietan ere ikusgai izango da.



Zer egiten dugu gure inguru hurbilean



HITZALDIA. Krisiari aurre egiteko azterketa eta alternatibak feminisotik

Nekane Jurado Perez, ekonomialari feminista, Elkartzen mugimenduko kidea

Maite Ezquerro, Mugarik Gabeko eta Emakumeen Mundu Martxako Plataformako kidea

Martxoak 5, Hegoa, Bilbo



15. ZINEMA ETA KOOPERAZIO EMANALDIA: "ERREALITATEAK PARTEKATUZ, ERALDAKETAK SORTZEN"

MARTXOAK 15-26, BILBO

Zinema eta bideo INDIGENAREN emanaldia

El velo de Berta (Chile)

Nuestra historia está en la tierra (Venezuela)

13 Pueblos en defensa del agua (México)

Komunikatzaile indigenek saio guztietan parte hartuko dute



HITZALDIA. "Ondo bizitzea" ren mundu-ikuskerara indigena

Nélida Faldin: Boliviako Asanblada Eratzailako kide ohia eta Lomerioko Jatorrizko Komunitateen Kontseilu Indigenako kidea.

Domingo Hernández: UK'UX B'E elkarte maiako koordinazio lantaldeko kidea eta Guatemalako Waqib Kej Kordinadora Maiako zuzendaritzako kidea.

Diana Atamaint: Shuar herriko Pachakutik-eko diputatua Ekuadorreko Nazio Biltzarrean.

2010eko ekainak 1, asteartea, Bilboko

La Bolsa (K/Pilota 10, Alde Zaharra), 19:00etan.

ZINEMA TXIROA 2010EKO SARIAK:

Aurreko urteetan bezala, Mugarik Gabek bi sari banatu ditu Gibarako Zinema Txiroaren Nazioarteko Jaialdian (Kuba). Hauek izan dira Aurtengo sarituak:

EMAKUME BATEK EGINDAKO FIKZIO OBRARIK ONENARI SARIA:

MINUTUAK, ORDUAK. Janaina Márquez, Kuba.

EMAKUME BATEK EGINDAKO ANIMATUTAKO DOMUNTAL EDO BIDEOARTE LAN ONENARI SARIA:

EGINKIZUNA. Milagro Farfán, Kuba.

Spot Sozialen III. Nazioarteko Lehiaketa

Mugarik Gabek Spot Lehiaketa hau antolatzen jarraitzen du hainbat gai sozialen gainean zaletuak dituzten ideiak sustatzeko helburuarekin.

2010ean lehiaketara aurkeztutako Spot Sozial Onenaren sariak banatu dira.

"Malkoak". Eduardo Vicente Movilla

Bozkatuena izan den spot sozialak jaso du Publikoaren Aitorza saria:

"Afrikak balio du". Pablo Galera Pérez eta Guillermo Molina



HAUSNARKETA ETA EZTABAIDA MAHAIK

Transnazionalen eragina Kolonbiako Herri Indigenetan eta euren mundu mailako ardurak.

Komunikazioa, borrokarako eta eraldaketarako emakumeen tresna.

Nazio anitzeko estatuak eta prozesu politikoak. Ekuador eta Boliviaren kasuak.

15 MUESTRA DE CINE Y COOPERACIÓN ZINEMA ETA KOOPERAZIO EMANALDIA

"COMPARTIENDO REALIDADES, GENERANDO TRANSFORMACIÓN"
"ERREALITATEAK PARTEKATUZ, ERALDAKETAK SORTZEN"

BILBO 2010

PELÍCULAS
PELÍCULAK

CINES CAPITOL ZINEMAK
SAIOAK / SESIONES: 17:30 - 20:00 - 22:30

MARTXOAK 15 DE MARZO
El velo de Berta (Chile)

MARTXOAK 16 DE MARZO
Nuestra historia está en la tierra (Venezuela)

MARTXOAK 17 DE MARZO
13 Pueblos en defensa del agua (México)

MESAS DE REFLEXIÓN Y DEBATE
EZTABAIDA MAHAIK

SALÓN DE ACTOS DE AGUSTO
AURETO NAGUSIA
calle Zabaldia, 4, 1o planta. 18:30 h.

MARTXOAK 23 DE MARZO
"El impacto de las transnacionales en los Pueblos Indígenas de Colombia y su responsabilidad global"

FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE POBRE DE CUBA

13 MUESTRA DE CINE Y COOPERACIÓN ZINEMA ETA KOOPERAZIO EMANALDIA

"COMPARTIENDO REALIDADES, GENERANDO TRANSFORMACIÓN"
"ERREALITATEAK PARTEKATUZ, ERALDAKETAK SORTZEN"

DOMOSTIA 2010

PELÍCULAS
PELÍCULAK

CINE LA BRETIA ZINEMAK
SAIOAK / SESIONES: 17:30 - 20:00 - 22:30

MARTXOAK 15 DE MARZO
El velo de Berta (Chile)

MARTXOAK 16 DE MARZO
Nuestra historia está en la tierra (Venezuela)

MARTXOAK 17 DE MARZO
13 Pueblos en defensa del agua (México)

MESAS DE REFLEXIÓN Y DEBATE
EZTABAIDA MAHAIK

SALA DE CÁMERA AURETOA
calle 31 Agosto kalea. 19:00 h.

MARTXOAK 23 DE MARZO
"La comunicación como herramienta de lucha y transformación desde las mujeres"

MARTXOAK 24 DE MARZO
"Estados plurinacionales y procesos políticos. El caso de Bolivia y Ecuador"

MARTXOAK 25 DE MARZO
"El impacto de las transnacionales en los Pueblos Indígenas de Colombia y su responsabilidad global"

ALKERA ASKEKO KREDITUA
CREDITO DE LIBRE ELECCIÓN

Info: gpuskoo@mugarikgabe.org / 943 44 59 77

**Emakumeen Mundu Martxa
EUSKAL HERRIAN**

Mugarik Gabek ondoren azaltzen diren arrazoiengatik parte hartu zuen mundu martxa honen testuinguruan antolatu ziren ekitaldietan: "Jendarte justu bat eta bakea lortzeko, berdintasunean, askatasunean eta elkartasunean oinarritzen den bestelako mundua nahi dugulako. Ez dugulako bigarren mailako herritarrak izan nahi eta gure parte hartzea bizitzako esparru guztietan aintzat hartzea nahi dugulako. Martxaren aurtengo kartan jasotzen dira nazioarte mailan EMMk (Emakumeen Mundu Martxak) zehaztutako lan-lerro nagusiak:

- **INDARKERIA MATXISTA**
- **PREKARIETATEA**
- **ELIKADURA SUBIRANOTASUNA**
- **SEXU ESKUBIDEAK ETA UGALKETA-ESKUBIDEAK**

**HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK 2010**

Proiektuaren izena	Entitatea	Emandako zenbatekoa
Indarkeria Matxistak. Alternatibak Latinoamerikatik eta Estatutik.	Gasteizko Udala. Berdintasunerako zerbitzua	2.500
Zentzuz Kontsumitu kanpainaren identifikatzea. III. Fasea Partzuergoan	Gasteizko Udala	4.980
VIII Zinema Sozialaren Emanaldia. "Errealitateak partekatuz, eraldaketak sortzen".	Arabako Foru Aldundia	15.000
Mugarik Gaberen hezkuntza proiektuetan Genero ikuspegia txertatzea	Arabako Foru Aldundia	1.809,85
ZENTZUZ KONTSUMITU II/CONSUME CON SENTIDO Partzuergoa	Gasteizko Udala	59.937,02
Marma-lur. Zentzuzko kontsumoaren aldeko mugimenduaren gaineko azterketa Gipuzkoan.	Eusko Jaurlaritza	92.373
Programa orokorrean Hezkuntzari	Eusko Jaurlaritza	177.555,86
El Salvadorko emakume gazteak euren eskubideak indartzen eta hiritartasuna gauzatzen.		
VII. Emanaldia; generoa, zinema eta kooperazioa.	Bizkaiko Foru Aldundia	59.915,07
Zinema Sozialaren Emanaldia: Errealitateak partekatuz, eraldaketak sortzen.	GFA	77.018 €
Hegoaldeko eta Iparraldeko Emakumeak Feminismotik Indarkeria Matxistari aurre egiten (kanpainako dokumentala)	Donostiako Udala	25.000 €
"Zinema emanaldia 2010"	Bilboko Udala	18.000



Politika eragina... Zer da? ...

Komunitatea osatzen duten pertsonen zuzenean eragiten dieten erabaki politiko, sozial eta ekonomikoetatik historikoki baztertuak izan diren pertsona zein jendarteko taldeengan eragina duten arloetan erabakiak hartzeko eta politika publikoak osatzeko boterea duten horiengan eragin (instituzio publikoak, enpresak, bankuak, komunikabideak, alderdiak...). Zeregin hau, Gobernuari eta bere administrazio ezberdinei aurre egiteko herritarren demokrazia eta zuzenbide ariketa bat da.

EP (Esku-hartze Politikoa) honek politikan, jarreretan eta jarduketetan jendartearen maila askotan eragiteko hainbat estrategia jasotzen ditu. eta ondorengo alderdi hauek lantzen ditu:

- **Nork erabakitzen du:** politika ezberdinak zehazten dituztenen hautaketak, izendapenak eta aukeraketak; epaileak, ministroak, zuzendaritza batzordeak, kudeaketa-zuzendaritzak, administrazioak, eta abar.

- **Zer erabakitzen dute:** legeak, politikak, lehenetsunak, zerbitzuak, programak, instituzioak, aurrekontuak eta adierazpenak.

- **Nola erabakitzen da:** herritarrei informazioa eman eta prozesuan parte hartzeko bidea erraztea, publiko zabalari kontsulta, eta herritarrekiko zein beste pertsona interesatuekiko erabakiak hartzen dituzten pertsonen erabaki hauen gainean azalpenak emateko beharrezkotasuna eta euren erantzuteko gaitasuna.

- **Hartutako erabakiak nola bete eta gauzatu** herritarren parte hartzea bermatuz eta kontuak ematea exijituz hartutako erabakiak praktikara eramateko eta onartutako legeak egokiro bete ditzaten.



Nola egiten da?

Politika ezberdinak gauzatzeko erabakimenean eragina izateko esku-hartze politiko eraginkorra artikulatzea jarraian azaltzen diren moduen bitartez:

- **Hezkuntza elkartrukea liderrak diren pertsonekin, politika ezberdinak** xedatzeko, lantzeko edo abiarazteko ardura duten pertsonekin;
- **Abian dauden politika, lege eta aurrekontuetan eragina izanez**, edo hauek eraldatuz zein proiektu eta programa berriak landuz;
- **Erabakiak modu parte hartzaileago eta gardenago batean hartzeko egiturak sortuz**, eta erabaki horien gainean kontuak ematea exijituz.
- **Hartutako erabakiak** betetzen ote diren egiaztatzeko jendartearen kontrola artikulatuz. Aipatutakoaren adibide egokia da Gipuzkoako CONGDE koordinadorak egindako azterketa herrialde honetako euskal instituzioek % 0,7^a ezartzen ari ote ziren egiaztatzeko.



Mugarik Gaberentzat Esku-hartze Politikoa funtsezko tresna da, eta gune instituzionalean dugun parte-hartzearen bitartez gauzatzen dugu, bai eta espazio berrien sorreran egiten dugun ekarpenen bitartez ere (Gasteizko ahalduntze eskola, Kooperazio Kontseiluak,...), iritzi artikuluen bitartez... Esku-hartze Politikoa ulertzeko dugun ikusmoldean, beste taldeekin elkarlana funtsezkoa eta estrategikoa dela pentsatzen dugu, aliantzak indartzeko, eta kohesio eta indar handiagoa erdiesteko, desberdintasun, injustizia eta bestelako arazo sozialen aurrean eragiteko hain zuzen ere. Horregatik saiatzen gara gure inguru hurbilean eragiten, eta beste erakunde eta mugimendu sozialekin aliantzak edo koalizioak sortzen, badakigulako erabaki politikoetan eragitea gure eguneroko ahaleginaren parte bilakatu behar dugula. Jakin badakigulako eragile aktibo eta subjektu politiko bezala gure tokia bilatu behar dugula. Mugarik Gaberen asmoa ez da jendartea aldatzea, baizik eta aldaketaren haziak ereitea. Prozesuak bultzatu eta indartzearen poderioz ezusteko emaitzak eskuratzen dira gainera. Gure egiazko gaitasuna eta indarrak neurtu, gure parte hartze soziala norabidetzeko eta kokatzeko gure identitatea lehenetsi eta baloratu, eta eragin nahi ditugun espazioak hautatu behar ditugu. Hau da GGKE bezala dugun identitatea definitzeko ñabardura: internazionalismotik eragin asmo politiko batetik.



Gipuzkoako Herrialdea

Gipuzkoako herrialdeari dagokionean, Mugarik Gabek Donostian eta herrietan garatu du bere lana. Zinema Indigena izan da 2010 urteko protagonista nagusia; kapitalismoaren alternatiba diren ereduak erakutsi eta tokiko errealitate eta proposamenekin uztartzeko ahalegina egin dugu.

Bereziki herrietan egin dugun lana nabarmen hazi da aurten. Horrela, Zinema Sozialaren Emanaldiak lurraldeko 9 herrietan egin dira, eta beste herri batean 2011an egingo da. Hala ere, aurtengo berrikuntza handiena, pertsona indigenen eta tokiko beste erakundeetako ordezkarien parte hartzea izan da, zinema-aretoetan, ikastetxeetan, unibertsitatean eta kultur guneetan egindako hitzaldi eta bideo-forumak aurkeztutako txostenen inguruko eztabaidarako topagune bilakatzea ahalbidetu baitute. Gure helburua hirietan zein herrietan egin dugun lanari garrantzi berdina ematea izan da. Kalitate eta gertutasun berdina eskaintzea alegia. Gainera, aurtengo emanaldietan parte hartu duen jende kopurua nabarmen hazi da, guztira ia mila pertsona izan baitira emanaldietan parte hartu dutenak. Emaizta positibo honen arrazoiak ondorengo faktoreetan kokatzen ditugu, planifikazioan eta jendarteratzean egin dugun ahalegina (prentsaurrekoak, kale-antzerkiak...), Arrasaten Elkarheitzaren erakundearekin egin dugun bezala beste tokiko erakundeekin lan egin izana, eta azkenik herri askotako jendeak izan duen parte hartze aktiboa.

Bestalde, Donostiako eta Iruneko emanaldietan -13. eta 14. edizioak hurrenez hurren-, herri indigenek egindako pelikula eta dokumentalen emanaldiaz gainera, hausnarketarako topagune ezberdinak antolatu ditugu. Horrela, Donostian hiru hausnarketarako eta eztabaidarako mahai-inguru egin genituen pertsona indigenen parte hartzeak lagunduta. Oraingoan gainera, asistentzia eta parte hartze handiagoa ahalbidetu zuen toki berri batean egin ziren, Doctor Camino Aretoan hain zuzen ere. Bertan jasotako hausnarketak zinez interesgarriak izan ziren, hala edukiengatik nola sakontasunengatik. Era berean, momentu hunkigarriak bizitzeko



aukera izan genuen, esker onerako eta zoriontzeko momentuak. Irunen ere antzeko topagune bat antolatu genuen.

Herrialdeko plataformetan dugun parte hartzeari dagokionean, beste urteetan bezala, aurten ere GGKEen Koordinadoran parte hartzen jarraitu dugu, batez ere Gipuzkoako Lurralde Batzarrean, bai eta 0 Pobrezia plataforman ere. Plataformaren komunikazio lantaldeak Herri Irratiarekin (Onda Vasca) adostutako hitzarmenari esker, hilean behin hainbat gairen inguruan irratian hitz-egiteko aukera izan dugu berriz ere. Irratian jorratu ditugun gaiak hauek izan dira: kontsumo taldeak, Deshazkundera, Emakume Indigenak eta Komunikazioa eraldaketa tresna bezala, Banku Etikoak, eta abar. Baina komunikazio lantaldeak aurten egindako ahaleginik handiena irailean kazetariarekin egindako gosari hitzordua izan da. Topaketa honek hobeto elkar ezagutzeko helburua zuen, bai eta gure lanak komunikabideetan duen lekua handitzea ere. Hitzordu honetan Mugarik Gabek Plataformako lanaren ardatza den Deshazkunderaren inguruko hausnarketa aurkeztu zuen. Era berean, gosari hitzordu honetan bestelako gaiak ere jorratu ziren; Krisiak medioetan duen tratamendua, Plataformaren jarduerak eta Milurteko Garapen Helburuen (ODM) egungo egoera besteak beste.

Plataformaren lan orokorra Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren (urriak 17) inguruko ekimenen antolaketa zuzenduta egon da. Aurtengo edizioaren ardatz nagusia Deshazkundera izan da, gure kontsumo maila gutxituz gure arrasto ekologikoa gutxitzeak duen garrantzia lantzea hain zuzen ere. Urtero bezala, kartel lehiaketa, Zine-foruma, Bizikleta Martxa eta Hitzaldia ere antolatu ziren, oraingo honetan Carlos Taibo izan genuelarik hizlari. Aurtengo berrikuntzetako bat, normalean jantoki sozialetan jaten duten pertsonekin kale gorrian egindako bazkari herrikoia izan da, beste elkarteekin batera ekimen honen antolakuntzan parte hartu genuen, hemen ere ezberdintasun eta pobrezia egoerak ematen direla nabarmentzeko. Beste kanpaina batzuetan ere parte hartu genuen, hauek besteak beste; Martxoaren 28ko Arrazakeriaren Aurkako martxan, Aste Nagusiko Piraten Abordatzean, ILP-a ez-betetzearen salaketan eta Munduko Arrozak ekitaldian, non arroz jasangarriaren saria jaso genuen. Plataformak oro har diskurtso politikoagoa eta kritikoagoa garatu du aurten, erantzukizunaren diskurtsoetik gertuago dagoen eta laguntza kontzeptuaren norabide aldaketa jasotzen duen bere mezu propioak eta edukiak sortuz.





Zer egiten dugu gure inguru hurbilean

2010 urte honetan ere Deshazkunde taldea eratu da, eta Mugarik Gabek lantalde honen sortzea sustatu zuen hezkuntza jardunean parte hartu zuen. Ahal izan dugun neurrian parte hartu dugu talde berri honen dinamikan eta datorren urte honetan gure inplikazioa handitzeko asmo garbia dugu.

Plataforma ezberdinetan izan dugun parte hartzearekin bukatzeko, nabarmentzekoa da urte hasieran Emakumeen Mundu Martxaren Euskal Herriko antolaketa parte hartu izan dugula beste erakunde feminista, sindikal eta bestelakoekin batera. Indarkeria sexista izan zen mundu martxa Donostiara martxoak 11n iritsi zenean landu zen gaia. Gainera, aurten lehendabiziko aldiz parte hartu dugu martxoak 8ko eta azaroak 25eko manifestazioak antolatzen dituen Donostiako Emakume Feministen Koordinadoran.

2010 urtean nabarmen hazi da Gipuzkoako instituzioekin garatu dugun koordinazioa eta euren jardunean izan dugun eragiteko gaitasuna. Guztira 9 batzar izan ditugu instituzio gipuzkoarrekin (euretako gehienak ekimen ezberdinetara gonbidatu ditugun pertsonekin batera), zinema sozialaren emanaldiak antolatzeko hainbat udaletxe eta kultur gunerekin izan ditugun ahaztu gabe.

Barne mailako eraketari dagokionean, 2010 aldaketa urtea izan da. Hainbat egoera medio, eta asanbladan hartutako erabakien ondorioz, liberatutako 3 pertsona izatek 2 izatera pasa gara, eta egokitze aldia ere garrantzitsua izan da. Langile bat gutxiago izatearen hutsunea borondatezko lana egin duten pertsonen parte hartzearekin orekatu da (2010ean sei lagun izan dira), bai eta praktikak gurean eginez ekimen ezberdinen antolaketa eta gauzatzean lagundu duten 3 ikasleren lanarekin ere. Lerro hauetatik besarkada eta esker beroenak eurek guztiei.

2011 urtea ere, aldaketa eta erronkez beteta datorkigu, batez ere zehaztu dugun Plan Estrategikoaren lanerako ildo eta modu berrien ondorioz. Hori guzti hori herrialdean zehazteko unea da, Donostian zein Gipuzkoako herrietan egin asmo ditugun ekimenetan berrikuntzak ekarriko dituzten aldaketak baitira. Prozesu ikuspegia izango duen lana da hau, indarkeria matxistak lanerako ardatz nagusi hartuta tokiko erakunde eta mugimenduekin batera egin beharreko lana hain zuzen ere. Adi egon beraz prestatzen ari garen guztiari. Eskerrik beroenak ere modu batean edo bestean Gipuzkoan Mugarik Gabekin lan egin duzen erakunde, pertsona eta instituzio guztiei.

Arabako Herrialdea

Herrialde honetan aurten egin dugun lana hezkuntzaren arloan garatu ditugun ekimen propioetan oinarritu da, bai eta koordinatzeaz gainera, beste guneeetan gu geu aberastea ere ahalbidetzen duen beste plataformetan izan dugun parte hartzean.

Gasteizko Plataforma Feminista parte hartzen jarraitu dugu. Martxoaren 8an, Mundu mailako Emakumeen Martxarekin bat eginez, lau ardatz zehatzetan oinarritutako ekimenak antolatu genituen: indarkeria sexista, prekarietatea, elikadura subiranotasuna eta eskubide sexualak eta ugalketa eskubideak.

Azaroaren 25an kalera atera ginen berriz ere indarkeria sexistaren adierazpen guztiak salatzen. Plataforma honen beste jardueretako bat 2009ko urriaren 25ean desagertutako Nora emakume gasteiztarraren auziaren eta instituzioen erantzun faltaren salaketa izan da.

Laugarren hiru hilabetera, aurten lanean hasi den Gasteizko Deshazkunde Taldean parte hartu dugu. Talde honek lehentasun bezala hartu du Alde Zaharraren trantsizioa (gasteiztrantsicion.wordpress.com). Momentuz gune honetan egiten dugun lana txikia da, baina lan hori egonkortzeko asmoa dugu plataformarekiko gure konpromisoa handituz. Aurten Gizarte-laneko Eskolako praktikak gurekin egitera etorritako bi ikasleren laguntza izan dugu, Eider eta Lidia. Biek ala biek herrialdean egiten dugun lanean aktiboki parte hartu dute eta bizi izandako esperientzia oso positiboki baloratu dute. Lidiak eta Eiderrek Mugarik Gabe erakunde ezagutzeko izan duten aukera nabarmendu nahi izan dute, bai eta hainbat gaien inguruan sakontzeko aukera ere: herri indigenak, genero berdintasuna, ... Era berean, herrialdeko beste kideekin batera Hala Bedi Irratiko Zebrabidea saioan hilero egiten dugun kolaborazioan parte hartu dute.

Arabako herrialdearen jarduerak batez ere beste erakunde eta mugimenduekin batera garatu ditugun horietan oinarritu dira, baina albo batera utzi gabe gure lana hobetu eta arduraz eta sakontasunez garatzeko baliatu ditugun eztabaida eta hausnarketa guneak.

Herrien Erresistentzia Baketsuaren hilabetea da urria, eta hilabete horretan CRICeko bi kide eta OIAko beste kide bat gurekin batera aritu dira lanean. Hiru egunetan zehar, kide hauek Kolonbiako Herri Indigenetako errealitateak eta alternatibak izan zituzten mintzagai hiriko Hikatenean. Lerro hauetan euren espazioa lagatzeko beti agertu duten prestutasuna eskertu nahi diogu Hika-ri.

Ezin aipatu gabe utzi Munduko Arrozak bezalako erakundeekin batera kalean egin ditugun jai-kutsuko hainbat ekimen, herrialdea osatzen dugun pertsonen arteko ezagutza eta harremana handitzeko balio izan digutenak.





Bizkaiako Herrialdea



2010ean egin dugun lana beste mugimendu sozialekin garatutako koordinazioan oinarrituta, elkarlan hau ezinbestekoa iruditzen zaigulako komunak zaizkigun gaietan herritarrengana iristeko, bai eta nazioarte mailako salaketak eta eskakizunak jendarteari eta instituzioei helarazteko eta eragin handiago lortzeko ere.

Coordinaciones con:

- M8rako eta A25erako Plataforma Feminista
- ILP, Iniciativa Legislativa y Popular.
- Kalea Guziona da
- Deshazkundera
- GGKEen Koordinakundera:
- Ingurugiro Lantaldea
- Plateruena Durangoko Kafe Antzokia
- Trapagako Hitza Kalean
- Leioako Kultur Saila. Leioako Udala
- Alez-Ale Muskiz
- Mendieta kultur Elkarte Sestao

Manifestuak sinatu ditugu, manifestazioetan parte hartu dugu eta hainbat kanpainari gure babesa eman diogu:

- Herrien Gailurra - Alternatibak elkar-lotuz 4
- Genero berdintasunerako manifestua krisi ekonomikoaren aurrean
- Mujeres en Red (Emakumeak Sarean) kolektiboaren kanpaina Osasun Sexualaren eta erreproduktiboaren
- Lege Organikoaren alde, eta Haurdunaldia Borondatez Eteko legearen alde
- "Irekiagoa eta solidarioagoa den jendartearen eta hiriarren alde"
- "Nork nori zor?" kanpaina
- Busturialdearen aldeko manifestua (EHNE)
- Trans Identitateen Despatologizazioaren aldeko Sarearen manifestua

Ezagutza eta prestakuntza eguneratzea beti da beharrezkoa guretzat

- Decrecimiento
- Software libre
- Soberanía Alimentaria: ACPA y MST

del cielo a la montaña

Iñaki Carro

Resistir para vivir,
Resisitir para avanzar



A la venta a partir de mayo

Un grupo de jóvenes misioneros llega en 1958 a una **Guatemala** anclada en la práctica de la *costumbre*, dando inicio a una encendida labor reevangelizadora que les abocará al enfrentamiento abierto con las autoridades indígenas tradicionales y los *aaq'ii* y *b'aalbatziixh* ixiles. Paralelamente, irán aflorando entre ellos unas discrepancias que se tornarán en definitivamente irreconciliables cuando la violencia política alcance la región ixil y se cobre las primeras víctimas entre sus catequistas y feligreses.

Una novela que pretende ser un modesto aporte al empeño por la Recuperación de la Memoria H'ística y cuyos beneficios irán destinados íntegramente a las consultas comunitarias en defensa de los territorios indígenas.

Herrialdean nabarmendu beharreko beste gai batzuk:

- Gu parte garen Solokoetxe auzoko jaietako gure parte hartzea.
- Batzarrak egiteko gure lokalaren lagapena beste elkarteei.





Azken urteotan bezala, 2010ean ere koordinazio-lanak egiten jarraitu dugu eta ekimen zehatzetarako beste erakundeekin batera lan egin dugu zenbait momentuetan:

Hauek dira NKTK 2010ean beste erakundeekin izan dituen harreman iraunkorrenak eta nabarmenenak:

Kolektiba Kolombia (Kolonbiarekiko elkartasun plataforma hau 2009ko azken hiruhilekoan sortu zen). Plataformako kide dira jarraian zerrendatzen ditugun erakundeak:

CEAR- Euskadi, Colectivo Bachué, MunduBat, Paz con Dignidad, Posada de los Abrazos eta Mugarik Gabe.

Arlo Indigenak harremanak estutu ditu Herri Indigenen eskubideen aldeko **Koordinazioa izena duen entitatearekin. Ondorengo** erakundeek osatzen dute:

MG, AlterNativa (Katalunya), Almaciga (Madril) eta Acusd (Herri Valentziarra).

Guatemalan ondorengo koordinazio-lanak egiten jarraitzen dugu:

- Europar Batasuna-Erdialdeko Amerika Elkarte Hitzarmenaren gaineko eztabaida lantaldea.
- Wakib Kej: ASECSA, CUC, UKUXBE, CEIBA eta CALDH. CONAVIGUA, COPINH.
- Nazioarteko GKEen Foroa



Erdialdeko Amerika Elkarrizketaren Alde Taldearekin batera lan egin dugu Erdialdeko Amerikan kooperazioaren azterketa kritiko bat egin ahal izateko, eta Erdialdeko Amerikan eta Euskal Herrian mugimendu sozialen eta kooperazioaren esparruan lan-estrategia komunak adosteko. Zentzu horretan, Bilbon egin genuen mintegia prestatzeko koordinazio lanak egin dira Hegoa erakundearekin eta Euskadiko GGKEen Koordinadorearekin.

Kubarekiko Kooperazioaren Euskal Mahaiarekin lan egiten jarraitzen dugu, eta lan asko Euskadi-Kubarekin koordinatzen ditugu.

El Salvadorko Kolektibo Feministarekin eta Clara Murguialdayarekin koordinazioa lantzen jarraitu dugu ezkerreko gobernu latinoamerikarrekin ikuspegi-eztabaida garatzeko helburuarekin.

Getxoko Lantaldearekin lanean jarraitzen dugu.





Galera eta Irabazien Kontua		2009	2008
A ERAGIKETA IRAUNKORRAK			
1.	Jarduera propioengatiko entitatearen diru-sarrerak	4.046.468,07	3.367.957,23
	a) Erabiltzaile eta bazkideen kuotak Sustapenen, babesleen eta laguntzaileen diru-sarrerak	26.066,91	26.701,69
	b) Ekitaldiaren emaitzei dagozkion diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako ondareak	18.499,68	26.298,97
	c) Diru-laguntzen, dohaintzen eta jasotako ondareen itzulketa	4.003.245,06	3.317.373,09
	d) Salmentak eta merkataritza-jardueratik eratorritako beste diru-sarrera arruntak	(1.343,58)	(2.416,52)
3.	Salmentak eta merkataritza-jardueratik eratorritako beste diru-sarrera arruntak	14.066,73	22.532,21
	a) Salmentak	1.506,60	381,01
	b) Zerbitzu-emateak	12.560,13	22.151,20
7.	Beste ustiapen diru-sarrerak	2.400,00	4.845,51
	a) Diru-sarrera gehigarriak eta kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	2.400,00	4.845,51
8.	Langileen gastuak	(490.616,95)	(453.994,20)
	a) Soldadak, lansariak eta parekatuak	(383.703,56)	(360.584,50)
	b) Karga sozialak	(106.913,39)	(93.409,70)
9.	Beste ustiapen gastuak	(3.452.539,64)	(2.895.147,89)
	a) Kanpo-zerbitzuak	(332.642,26)	(305.424,21)
	b) Zergak	(231,62)	(68,64)
	c) Merkataritza eragiketengatiko hornidura galerak, hondatzeak eta aldakuntzak	(3.720,00)	(3.000,00)
	d) Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(3.115.945,76)	(2.586.655,04)
10.	Ibilgetuaren amortizazioa	(15.156,83)	(4.942,73)
A.1)	USTIAPENENKO EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)	104.621,38	41.250,13
13.	Ibilgetuaren besterentzeagatiko hondatzea eta emaitza	0,00	44,57
	b) Besterentzeagatiko eta besteengatik emaitzak		44,57
14.	Beste emaitza batzuk	14.370,37	(17.195,97)
15.	Finantza sarrerak	9.992,54	10.461,62
	d) Balore negoziagarrienak eta beste finantza tresnenak (hirugarrenak)	9.992,54	10.461,62
16.	Finantza-gastuak	(1.838,83)	(4,25)
	b) Hirugarrenetik zorreatutakoak	(1.838,83)	(4,25)
A.2)	FINANTZA EMAITZA (13+14+15+16+17)	22.524,08	(6.694,03)
A.3)	ZERGEN AURRETIKAKO EMAITZA (A.1+A.2)	127.145,46	34.556,10
18.	Trukeagatiko aldeak	(12,90)	0,00
19.	Finantza tresnen besterentzeagatiko hondatzea eta emaitza	70,52	378,67
	b) Besterentzeagatiko eta besteengatik emaitzak	70,52	378,67
A.4)	ERAGIKETA IRAUNKORREN ONDORIOZKO EKITALDIAREN EMAITZA (A.3+18)	127.203,08	34.934,77
B ETENDAKO ERAGIKETAK			
A.5)	EKITALDIKO SOBERAKINA (A.4+19)	127.203,08	34.934,77



MAZARREDO AUDITORES, S.L.
Miembro nº S-1.643 del Registro Oficial de Auditoría de Cuentas

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES

A la Asamblea General de la Asociación MUGARIK GABE:

- Hemos auditado las cuentas anuales de la Asociación Mugarik Gabe que comprenden el balance de situación al 31 de diciembre de 2009, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto y la memoria correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, cuya formulación es responsabilidad de la Junta Directiva de la Asociación. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.
- De acuerdo con la legislación mercantil, la Junta Directiva presenta, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto, y de la memoria, además de las cifras del ejercicio 2009, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a las cuentas anuales del ejercicio 2009. Con fecha 2 de octubre de 2009 emitimos nuestro informe de auditoría acerca de las cuentas anuales del ejercicio 2008 en las que expresamos una opinión favorable.

- En nuestra opinión las cuentas anuales del ejercicio 2009 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Asociación Mugarik Gabe, al 31 de diciembre de 2009, de los resultados de sus operaciones, y de los cambios en el patrimonio neto correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha y contienen la información necesaria y suficiente para su interpretación y comprensión adecuada, de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados en la normativa española que resultan de aplicación y que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

MAZARREDO AUDITORES, S.L.
Miembro nº S-1.643 del Registro Oficial de Auditoría de Cuentas
FDO. RICARDO ORTUZAR GARCIA

Bilbao, 27 de julio de 2010

**MUGARIK GABE
EGOERAREN BALANTZEA**

	2009	2008
A) AKTIBOA	218.436,73	11.945,61
A) AKTIBO EZ-ARRUNTA		
I. Ibilgetu ukiezina	1.208,21	1.645,81
3. Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	393,60	957,28
5. Informatika-aplikazioak	814,61	688,53
III. Ibilgetu materiala	216.728,52	9.799,80
1. Lurra eta eraikinak	206.406,28	0,00
2. Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu materiala	10.322,24	9.799,80
VI. Epe luzerako finantza-inbertsioak	500,00	500,00
5. Beste finantza-aktiboak	500,00	500,00
B) AKTIBO ARRUNTA	4.559.094,09	3.731.428,49
IV. Merkataritza-zordunak eta kobratzeke dauden beste kontuak	3.273.828,96	2.300.031,18
3. Hainbat zordun	10.658,27	29.435,57
4. Langileak	2.008,24	318,20
6. Administrazio Publikoekin ditugun beste kredituak	3.261.162,45	2.270.277,41
VI. Epe laburrerako finantza-inbertsioak	10.000,00	180.674,45
3. Zoraren ordetako baloreak	10.000,00	180.674,45
VII. Epe laburrerako periodokatea	0,00	255,20
VIII. Eskudirua eta balio berdineko beste aktibo likidoak	1.275.265,13	1.250.467,66
1. Diruzaintza	1.275.265,13	1.250.467,66
GO GUZTIZKO AKTIBOA	4.777.530,82	3.743.374,10

	2009	2008
A) PASIBOA	4.668.161,09	3.689.965,01
A) ONDARE GARBIA		
I. Fondo propioak	464.157,86	336.954,78
1. Sortze-zuzkidura	25.280,53	25.280,53
3. Erreserbak	311.674,25	276.739,48
7. Ekitaldiaren emaitza	127.203,08	34.934,77
III. Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako ondareak	4.204.003,23	3.353.010,23
B) PASIBO EZ-ARRUNTA	62.849,58	0,00
II. Epe luzerako zorrak	62.849,58	0,00
2. Kreditu-entitateekin dugun zorra	62.849,58	0,00
C) PASIBO ARRUNTA	46.520,15	53.409,09
III. Epe laburrerako zorrak	5.068,21	651,55
2. Kreditu-entitateekin ditugun zorrak	39,80	8,50
5. Beste finantza-pasibo batzuk	5.028,41	643,05
V. Onuradunak - Hartzekodunak	5.044,24	9.407,40
VI. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontuak	36.407,70	43.350,14
1. Hornitzaileak	284,18	284,18
3. Hainbat hartzekodun	14.898,91	22.189,80
4. Langileak (ordaintzeke dauden ordainsariak)	1.193,78	1.891,93
6. Administrazio Publikoekin ditugun beste zorrak	20.030,83	18.984,23
GO ONDARE GARBIA ETA GUZTIZKO PASIBOA	4.777.530,82	3.743.374,10

Nazioarteko elkarlanaren erronkak Erdialdeko Amerikan:
errealitatea eta etorkizunerako aukerak

Nazioarteko Mintegia



Mirada crítica desde los sujetos políticos regionales

COOPERACIÓN INTERNACIONAL EN CENTROAMÉRICA

DR. HENRY MORALES LÓPEZ
CENTROAMÉRICA, 2010

Nazioarte mailan ematen ari diren aldaketa politikoak nazioarteko garapenerako laguntzaren inguruko errealitatea eztabaidatzen jarraitzeko arrazoi izan ziren; bai Erdialdeko Amerikako eta Europako erakunde sozialekin, bai eta laguntza ematen duten herrialdeekin ere.

2010eko azaroaren 10ean, 11an eta 12an Bilbon (Euskal Herria) egindako nazioarteko mintegi honen xedea, nazioarteko garapenerako laguntzaren funtzionamendu logikak behar duen premia azterketaren testuinguruan pentsamendu kritikoa, proposatzailea eta dinamikoa sortu eta sustatzea izan zen. Helburua, "Hegoaldearen eta Iparraldearen" arteko garapeneraren paradigma berrietan sakontzeko baliagarria den azterketa bat egitea izan zen. Mintegi hau, mugimendu eta erakunde sozialen esparruan elkarlan politiko eta estrategikoak sustatzeko hausnarketa gune bat eratzeko tresna izan zen; Erdialdeko Amerikan eta Europan interesgarri jotzen diren gaien gaineko azterketa elkarrekin egin, eztabaidatu eta ekinbide iraunkorreko agenda bat osatzeko komunikazio gune bat sortzea alegia.

Mintegian hainbat erakunde sozialek eta Erdialdeko Amerikako, Estatu Espainiarreko eta beste Europako herrialdeetako garapenerako GKEek parte hartu zuten. Era berean, Estatu Espainiarreko kooperazio agintariekin zein gobernuarekin, eta gai hauetan interesa duten espezializatutako beste entitateekin egoera aztertzeke eta hartu emanak izateko espazioak ere ahalbidetu ziren.

HELBURUAK ETA EMAITZAK:

- Nazioarteko mintegiak, Erdialdeko Amerikako eta Europako erakundearen artean itun estrategikoak finkatzeko helburua izan zuen, gure herrien nazioarteko elkarlanaren, garapeneraren eta borroka politikoen arloan bi aldeentzat politikoki interesgarriak diren gaiak jarraipena egiteko aldeko agenda bat sortze aldera.

- Nazioarteko kooperazioak maila orokorrean eta bereziki Erdialdeko Amerikan egun bizi duen egoeraren gaineko azterketa kritiko, proposatzaile eta dinamikoa burutu zen. Lehentasunetako bat, testuinguru honetan erakunde sozialek dituzten joerak eta erronkak identifikatzea izan zen.

- Herri indigenek eta emakumeek egiten dituzten proposamenen eta lanerako testuinguruaren gaineko zeharkako hausnarketa egin zen mintegian.

- Erdialdeko Amerikako eta Europako erakundearen arteko -batez ere estatu espainiarrekoen arteko- garapen harremanei eta harreman politikoei buruzko eztabaida politikoa ere eman zen. Elkarlanaz hausnartzeko espazioak ahalbidetu eta batzuen eta besteen ahaleginak artikulatzeko aldeko gutxienerako agenda bat zehaztu genuen.



PARTE-HARTZAILEAK:

Erdialdeko Amerikako ordezkariak dagokionean, parte hartu zuten erakunde guztiak "Erdialdeko Amerika Elkarrizketaren alde" (Centro América por el Dialogo-CAD) taldeko partaide aktiboak ziren. Ondoko erakunde hauek parte hartu zuten:

-Coordinadora Civil -CC , CAD-Nikaragua

-Coalición Hondureña de Acción Ciudadana (CHAAC), CAD-Honduras

-Colectivo de Organizaciones Sociales (COS): CAD-Guatemala

-Foro de Sociedad Civil y Movimiento Popular de Resistencia (MPR-12); FUNPROCOOP y Movimiento por la Vida y la equidad campesina - MVEC-, CAD-El Salvador

-Red Costarricense de Control Ciudadano (RCC), CAD-Costa Rica

-Alternativa Patriótica Popular (APP) y FRENADESOS, CAD-Panamá

Europar ordezkariak dagokionean, parte-hartzaileak garapenerako GKEak, entitate akademikoak, estatu espainiarreko eta Europako beste herrialdeetako erakunde sozialak eta kooperazio ofizialeko eta tokiko gobernuen entitateak izan ziren.

Mintegia ondoko erakunde hauek antolatu zuten: Mugarik Gabe eta "Erdialdeko Amerika Elkarrizketaren alde" (CAD) taldea.



Bilbo, Euskal Herria, 2010eko azaroak 10, 11 eta 12